

M. A. Mintegi Larraza

Coca-Cola *Erdi Aroan*



kin

IBAIZABAL



Migel Angel Mintegi Larraza Ataunen jaio zan 1949an, baina Beasainen bizi da txikitatik.

Proiektugile izan arren aspalditik dabil hizkuntza eta literatura lantzen. Holan, 1987an, Donostia Hiria Ipuin Lehiaketan lehenengo saria irabazi eban eta, 1991an, Irun Hiria Literatur Sarietan, eleberri arlokoa.

Nobela bi argitaratu dauz dagoaneko: lehenengoa, 1992an, Irungo saria irabazi ebana; eta bigarrena, 1996an genero baltzeko nobela hau.

Hona hemen lanen izenburuak:

- *Udazkena* (1992)
- *Esker mila Marlowe* (1996)

M. A. Mintegi Larraza

COCA-COLA
ERDI AROAN

The logo for Ekin, featuring a stylized lowercase 'e' followed by the word 'kin' in a bold, sans-serif font.

IBAIZABAL

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren
diru-laguntza jaso dau.*

© M. A. MINTEGI LARRAZA
© IBAIZABAL ARGITALETXEA
BILDUMEAREN DISEINUA: ANTTON OLARIAGA
AZALEKO MARRAZKIA: INMA MENDIOLA
BARRUKO MARRAZKIAK: INMA MENDIOLA
BIZKAIERAZ: SABIN BARRUETABENA

ISBN: 84-8325-235-X
LEGEZKO GORDAILUA: BI-707-99
IBAIZABAL ARGITALETXEA
48290 EUBA - ZORNOTZA
TAILER GRAFIKOAK: ZURE S. A.

COCA-COLA ERDI AROAN

R. 28.431

HELDUENTZAKO
BIBLIOTEKA
ADULTOS
KULTUR ETXEA
BASAURI

SARRERA LEZ

Ataun Gipuzkoan dago, Goierri eskualdean, Nafarroako mugan. Agauntza ibaiak bitan zatitzen dau. Menditsua da eta baso zabalak dagoz ibaiaren alde bietan. Erroldan sartutako biztanleak ez dira ugari, gero eta gitxiago, tamalez; baina baso eta haitzuloetan bizi ei diranak bai, ostera, ugari eta harrigarriak gainera.

Dana dala, ez da nire asmoa izaki horreek lerro honeetara ekartea, Ataunek emon dauan gizonik handienak, On Joxe Miel Barandiaran ospetsuak, euri buruz makina bat elezahar polit eta harrigarri jasota itzi deuskuz eta. Nire asmoa da, Ataungo erraietan sartutako baten guri gertatutakoa kontatzea, Mikel nire lagun minak eta biok bizi izan genduan abentura ikaragarria ezagutzera emotea.

Hona hemen, bada, zorioneko negu haretan gertatu jakuna.

I
HAITZULOAN

—Aitor, hasi haz historiako laburpena egiten? —itaundu eustan Mikelek.

—Zein laburpen? —ez nekian zertaz ziharduan.

—Erdi Aroa Euskal Herrian, bando-gerrei buruzkoa —zehaztu eban.

—Bai zera! Nondik hasi ere ez jakiat. Ez jaukat batere gogorik, gainera. Hori dok rolloa, hi!, Erdi Aroko gatazketan sudurra sartu behar XX. mendea amaitzear dagoanean. Hala-korik, mutil! —erantzun neutsan ardura barik,

motxilan arakatzeari itzi barik, buru-belarri zereginari emona.


—Nik burua hutsik jeukat —Mikelek ekin—. Irakasleak gaiari buruz ziharduala ia lokartu nintzoan.

—Ni lez hago orduan. Ni lokartu ez, baina Miren aurrean najoan eta...

—Ahaztu egin jatan esatea, lehengoan Jonegaz ikusi najoan, gozo-gozo diskotekan.

—Ez nok harritzen. Dana dala, ahaztu kaleko leloak eta goazak lehenbailehen kobazulora —esan neutsan, motxilea bizkarrera-tzeko gogoz.

Aizkoate deritxon mendian gengoan, Troskaeta kobearen aho ilunaren ondoan, sartu aurretik azkenengo prestaketei emonak. Materiala aztertzen ginarduan: sokak, linternak, ordezeko pilak... Azkenengo honeei berebiziko garrantzia emoten geuntsen, behin batez beste kobazulo baten nahiko larri ibili ginalako argitara urteteko. Eskerrak urteeratik urrun ez



genbilzala, bestelan... Halan eta guztiz ere, denpora dezente kostatu jakun urtetea.

Negu gorria zan. Hotz argitu eban eguna. Temperaturea zero azpikoa zan, antza. Zeru urdinskan eguzkia gorantz joian, zurbil eta makal, leiaren bizar zuria biguntzeko gauza ez zala. Gure aurrean, Txindoki mendiak, edurrezko kapela zuria jantzita, harro begiratzen eban bailararantz. Haren bizkarrean Aralar mendizerrea edurrezko izarapean zetzan.

Sartu aurretik begirada bat egin geuntsan. Erakargarri egoan oso. Egun haretan, alabaina, nahiago genduan lur barruko iluntasuna bortxatzea begibistan geunkan edur geruza gardena baino. Beste baten joango ginan edurrak zurututako gailurretara.

Izan ere, lur gainekoa gitxietsi barik, aspaldiko partez liluraturik ginduzan lurpeak. Egia esan, sartu barik ezinezkoa da aditzera emotea bertan ikusi daitekena, haitzuloen goi,

behe eta aldamenetan. Arte alorrean aditua ez banaz ere, ez dot uste naturea besteko artista handirik sekulan izan danik, ezta izango danik ere.

Lurpeko edertasun horreek eta kobazuloe-tako giro bereziak (baretasun, tentsio eta misterio nahasketea), laguntzen euskuen eragozpenak gainditzen. Honeek tupustean sortzen dira lurpean, dana sortzen da tupustean lurpean, egia esan, linternen argiak beti ekarten deustulako zeozer berezia begi-ninietara, itxaron barik sarritan. Hauxe da, itxuraz, aitaturako giro bereziaren eragilea.

Sartu ginan. Ohi lez, orduko haretan ere, lur barruak ez euskun ezelako erreztasunik eskeini. Batzuetan tente, besteetan makurturik eta sarri arrastaka, barruratuz joan ginan. Behin baino gehiagotan sokak lagunduta joan ere. Jakina, oztopoak erakargarriagoa egiten eben abenturea, oztoporik ezean xarma hori galduko eban, duda barik.

—Areto nagusitik hur egon behar joagu —esan eustan Mikelek halako baten—, putzura ailegatzekotan.

—Atsedean hartuko joagu bertan.

—Baita zeozer jan ere, gose ikaragarria jeukat —jakinarazo eustan lagunak.


Igarri lez, laster heldu ginan leku berezira, erdian putzu bat eukan gela zabalera. Zoragarria zan bazterra! Dana polita zan, baina batez ere sabaialdea, estalaktitaz jositako sabaialde luzea. Ikusgarriak ziran honeek egiten ebezan irudi abstraktuak. Denpora luzea egon ginan begira, isilik, uneaz gozatuz. Azkenean, ostera, tripa-zorriak protestaka hasi jakuzan. Amore emon geuntsen, jakina, gustura emon ere, ondo irabazia geunkalako otordua.

—Eta orain, zer? —itaundu eustan Mikelek, sabela bete orduko.

—Ez jakiat. Hemendik aurrera ez ei jagok ezer berezirik. Garaiz gagozak, baina, joan aurretik azterketatxo bat egiteko.

Ez dok berandu eta politegia dok leku hau.

—Aurrera, bada!



Putzua inguratzen hasi ginan, argia zoko guztietara bideratzen, azkenengo zehaztasuna ere jasoteko argitara urten aurretik. Halako baten, Mikelek dei egin eustan.

—Aitor, hator hona! —harridurea nabaria zan haren tonuan.

—Zeozar aurkitu dok?

—Bai, pasabide estu bat, urradura moduko harkaitzean, ataka bat edo.

—Pasabide bat, dinok? —harritzekoa zan, haitzuloaren gainean batutako informazioan ez zan ataka edo zana zalakoa aitatzen, eta haitzuloan izandako askogaz egonak ginan sartu aurretik—. Inork ez jok aiatatu ere egin, ezta?

—Inork ere ez. Barrura noiak. Harkaitzean egindako arrakala bat izango dok, besterik ez.

Ahal eban moduan, estua zanez oso, egin eban barrura lagunak. Berehala galdu neban bistatik. Zati batera deiadar egin neustan:

—Mikel! Non habil? Ezer barririk bai?

—Ez, pasabidea zabalduz joiak, baina orain arte ez joat ezer berezirik ikusi, behe-rantz egiten dauala bakarrik —zulo estuak tonu berezia emoten eutsan ahotsari.

—Zuhur ibili. Itxaroik apur bat, ni ere banoiak eta —sartzea erabagi neban.

—Hator, bai. Ni aurrera noiak. Astiro joango nok.

Motxilea eskuan hartuta, trabeska ibiliz, zeharkatu neban harri hezoan egindako sarbi-dea. Metro batzuk aurrerago zabalagoa zan. Aurreratxoago ezkerrera egiten eban, bihurgune bat eginda. Ez neban lagunaren arrastorik ikusi.

—Mikel! —deiadar egin neutsan motxilea bizkarreratu bitartean.

—Ondo naiagok —urrunik lez heldu jatan Mikelen ahotsa—. Hator! Kontuz ibili hadi, ostera, bidea zabalagoa bada ere, pendiza handia dok, eta lurra labankor jagok.

Abiatzeko puntuan, ahotsaren oihartzunak ezabatu barriak artean, zaratots motel bat heldu jatan Mikel ebilen aldetik. Adi jarri nintzan, sentimenak teinka, susmo ilun batek kezkatuta. Segundoak pasatzen joan ziran eta ez neban beste hotsik entzun. Isiltasuna astun bihurtu zan.

—Mikel! —deiadar egin neban azkenean.

Nire deiak ez eban erantzunik izan.

—Mikel!! Mikeeeeee!!! —dei egin neutsan zoro moduan.

Behin eta barriro urratu neban batek daki noiztikako isiltasuna. Deiadarrak, harrizko hormetan talka eginda gero, oihartzun bilakaturik jaso nebazan. Gero isiltasuna barriro. Isiltasun astuna! Larritu egin nintzan, guztiz larritu. Beste saio bat egin neban, ia eztarria urratu arte. Alferrekoa ha ere. Bildurrak hartuta, oraintsuko poza guztiz desagertuta, zer egin ez nekiala egon nintzan une luze baten.

Azkenean, bihotza indartsu taupadaka, aurrera egin neban, pasabidetik barrura Mikel galdutako bihurgunerantz. Linternearen argi dardartiak ilunbea ozta-ozta urratzen eban. Hormak leunak ziran, hezoak, likatsuak leku batzuetan. Eta barrurantz joan ahala, Mikelek esan lez bidea aldapatsuagoa izateaz aparte, gero eta labankoragoa zan, metrotik metrora gehiago. Forma zehatz bako tutu batetik ninola zirudian. Linternearen argi ahulak —batek

daki bildurrak ez ete eustazan begiak lausozten—, harrizko horma biluziak jarten eustazan agerian, besterik ez. Ilunak ziran oso.

Halako baten laban egin eta orekea galdu neban. Linternea hegaz joan jatan eskutik. Zas!!! Begi itxi-edegi baten, ia konturatu barik, ilunpetan galduta, natureak egindako txirrista batetik behera joan nintzan, hankaz gora jausita. Eta unetik unera abiada handiagoa zan, ikaragarria, zoroa...

Gelditu ezina!!!

II EGUN-ARGITAN

Argia barriro ikusi nebanean, une luze batez zorabiatu geratu nintzan, guztiz harrituta. Zelan arraio eitekean...? Izan ere, gogoan neban azkena baltza zan, ilunpeetako munduaren isladea, jauskera gelditu ezin baten gomuta latza. Nahastuta nengoan, guztiz nahastuta.

Argipekoari itxurea emoten ahalegindu nintzan. Holan, behe-lainoa ezabatzen danean lez, joan ziran sortzen nire inguruko irudiak, astiro-astiro baina eten barik. Bedar lakarrezko aldapa piko batean etzunda nengoan luze-luze, zeru ilun baten azpian, zuhaiska ugari ebazan

mendi baten magalean. Bedarrezko zoru malguak jauskerea bigundu eustan itxuraz.

Sena berreskuratu orduko hanka-besoak mogidu nebazan. Min sentitu arren, min nahiko handia, gorputza oso-osorik eta kalte barik neukan. Poztuta, nire atzerantz begiratu neban, aldapan gora hain zuzen, jausitako zuloaren bila. Harritu egin nintzan, itzel harritu: han ez zan zulorik, ikusmenean ez behintzat. Makina bat aldiz begiratu eta alferrik, pendiz bedartsuan ez egoan ezelako zuloren aztarnarik. Ikaragarria zan. Begiak kliskatu nebazan. Ez, ez nenbilen ametsetan. Ez, aldapearen barruan, hara!, Aizkoateko haitzak hantxe, Mikel eta biok sartutako kobazuloaren gainaldeko gailurreria. Ez nengoan, ostera, kobazuloa egoan magalean, kontrakoan baino.

Garbi egoan jauskeran mendia zeharkatu genduala. Genduala...? Mikel etorri jatan gogora. Ene! Eta Mikel? Non egoan Mikel?! Bat-bateko gogoetak larritu ninduan. Alde guztietara begiratu eta zuloa lez ha ere batek

daki non. Dei egin neutsan. Alferrik. Mendi magalean galdu ziran nire deiak.

Estutu egin nintzan. Estualdiak, zorionez, gogoia bizkortu eustan. Luzapen barik haren bila jo behar neban. Baina nora? Non demontre egoan? Ez neban tutik ere ulertzen. Mendiaren erraietan artean? Zein egoeratan? Nirea, esan lez, ona zan, urradura arin batzuk aparte oso-osorik nengoan eta. Oso-osorik eta jauzia gertatu aurretik lez, motxilea aldamenen neukalako, dozena erdi metrora, eta linternea eskuan, gogor helduta, noiz eta zelan berreskuratu neban jakin ez banekian ere.

Zutundu egin nintzan. Ordua jakin gura izan neban. Erlojua ez ebilen ondo. Kristal likidozko pantailatxoan hizkiak keinuka ebilzan. Zerurantz begiratu eta eguzki tristeak, artean nahiko altuak, arratsaldean nengoala adierazo eustan. Begiradea lurrerantz bideratu neban. Egin orduko sor eta lor geratu nintzan.

Non arraio nengoan? Ha zoramena!

Atzealdekoa Aizkoateko gailurreria zan, dudarik ez; urrunago, Gipuzkoa eta Arabako mugan, Aizkorri mendizerrea ikusi neikean, zuri-zuri eta diz-diz arratsaldeko argi gorriskearen azpian; eta hurrago, beherantz begirata, Ataun herria bitan zatitzen dauan Agauntza ibaia eta ibar estuaren beste alde malkartsua. Dana zan ezaguna; baina... aldatuta, guztiz aldatuta egoan! Izan ere, non demontre egozan ibarraren luze-zabalean hedaturiko baserri eta auzoak, nik txikitatik ezagutzen nebazanak? Non arraio egoan Nafarroara joian errepide estu eta bihurgunetsua? Eta mendian?... Mendian neguak soilduriko pago eta hosto galkorreko zuhaitzak danean ikusi eitekezan, eta ez nik gogoan nebazan pinu zakarrak. Sinesgaitza zan! Aizkoateko gailurreriak bakarrik eusten eutsan nik ezagututako itxureari, aldatu barik egoan.

Atximurka egin neutsan besoari. Mina sentitu neban, berehala. Zalantzaren bat baneban ezabatuta geratu zan: ez nenbilen ametsetan, ez horixe. Halan eta guztiz ere... Zoratzeko modukoa zan! Ordu gitxitan jaio eta bizi

izan nintzan eskualdea guztiz aldatuta ikusten neban: ez pinurik, ez pistarik, ez baserririk mendian...; eta, ibarrean... herririk ez! Non ete egoan, non arraio!, Ataun herri luzea, nire aitita-amamen herria? Ordu batzuk lehentxoago egoan alderdian eraikin batzuk ikusi neikezan, zatarrak oso, nik gogoan nebazanakaz antzik ez ebenak inondik ere. Dorre luzea eban elizea guztiz berezia zan, zaharra baino zaharragoa eta, haren inguruan sakabanatuta egozan etxeak, borda modukoak.

Non arraio...?

Zur eta lur egin nengoan. Sekulako nahasketea neukan buruan. Itaunak ez eustien bakean izten: non ete egoan Mikel?; non herria, baserriak, errepidea, pistak, pinu zikinak?... Non arraio?!

Zoramenari aurre egin behar neutsan, eta agudo gainera, denpora gehiago galdu barik. Eta, ahal izan ezkerro, burua galdu barik jardun, egoera haretan gaitz izan arren. Holan, ibarrera joatea erabagi neban, laguntza eske. Abiatu aurretik, baina, azkenengo begiradea

emon neutsan inguruari, ez dakit zenbatgarrena. Garbi egoana ziurtatu besterik ez neban egin: Goierrin nengoan, bai, nahiko ondo ezagutzen neban eskualdean; baina ordu batzuk lehenago ametsetan ere irudikatu ezingo neban Goierrin. Ikaragarria!

Jarraian motxilea arakatu neban. Kobazulora eroandako guztia sartu lez egoan barruan, ez zan ezer falta: Coca-Cola poteak, jaki batzuk, txamarrea, botikina, eskaladako soka mehea, prismatikoak eta linternea. Hantxe egozan, nahas-mahas eginda, baina motxilan.

Araketea amaituta aldapan behera bideren baten bila abiatu nintzan. Egin aurretik, baina, erlojua orduan ipini gura izan neban, gitxi gorabeherako ordu baten, jakina. Alferrik ahalegindu nintzan, erloju digitalak keinuka jarraitu ebalako. Ha ere harritzeko modukoa zan. Baina, egia esan, zer ez?

Gogoetak estututa, biziro estututa, bidezidor batera heldu nintzan. Aurkikuntza xumeak apur bat nasaitu ninduan, apur bat bakarrik.

III BASETXEA

Oinatzen bila alferrik jardun eta gero ibarrerantz abiatu nintzan. Beherantz ninoiala ia ez neutsan begirik kendu ikusmenean nebanari. Zelan kenduko neutsan! Orografia, aldeak alde, ezagutzen neban berbera zan. Erliebeari egokionean, jakina, azalekoa, esan lez, guztiz aldatuta egoalako: baso ugari eta giza arrasto urri ikusi neikean. Ataun ez ezik, kilometro bira egon behar eban Lazkao herria ere, desgertuta egoan. Nik ezagutzen neban Lazkao, jakina. Honen lekuan, etxe multzo txikia eta, han-hemenka, borda zatar batzuk besterik ez neban ikusten.

Ha zan, ha! Aztikeriaren batek nire esku-aldea azpikoz gora aldatua eban... Zerk bestelan? Ez nekian zer pentsatu. Burura etordan guztia iluna zan oso.

Ikaragarria zan!

Baso batera heldu nintzan. Pagadi bat zan, sendo samarra, baina pagoen artean har-kaiztegiko zuhaitz mota batzuk ere ikusi eitekezan: hurritzak, elorriak eta gorostiak, batez ere. Sartu orduko barrero ere begiradea lurre-rantz bideratu neban, zuhaitzen gerizpean oinazpikoa bigunagoa zalako, orbelez osotako zorua. Holan, gorostiak babestutako bide-bazter baten, mendiko boten oinatzak ikusi nebazan lokatzetan. Ez ziran bakarrak, hareen inguruan gehiago eta ugariago egozan, baina batek daki zein oinetako motatakoenak. Besteak, barriz, Mikelen botenak ziran, zalantza barik, nahiko barriak artean, gainera.

Bizirik egoan, gauza zan ibilteko, eta ez neban uste urrun ibili eitekeanik. Honek poztu

eta adoretu egin ninduan. Aurkitu egin behar neban, Mikel ere ni ninoian leku berera joian ziurrenik, aurkitutako beste hareikaz. Zergaitik, baina, ez zan nire bila ibili?... Honek harritzen ninduan, harritu eta... baita larritu ere, jakina. Hagaitik, lehenbailehen aurkitu behar neban, eta aurkitu orduko lehenengo orainari eta gero etorkizun ilunari aurre egin behar geuntsan, biok bat eginik. Izan ere, garbi egoan gure garaitik kanpo genbilzala, denporan atzera-edo eginda, eta dezente gainera.

Ez nekian zelan (zelan jakin?), baina ederra egin genduan!

Barriz ere dei egin neutsan nire adiskideari, oihi egin neban eztarria urratu arte, basoko bakea hondatuz. Alferrik, orduko hartan ere ez neban erantzunik jaso, baso soilduan galdu ziran nire deiadarrak.

Abian jarri nintzan. Laster, errekatxo batek bidea zeharkatutako lekuan, barrero ere oinatzak ikusi nebazan. Aurreko berberak

ziran: Mikelenak eta beste ezezagunenak. Oker ez banengoan lauzpabost lagunegaz joian. Lagunakaz...?

Arratsalde haretan bertan jakin behar neban!

Basoa trinkotasuna galtzen joian neurrian bide-zidorra zabalagotuz joan zan. Orbelak estaltzen eban haren luze-zabalerea, izotzak gogorturiko orbelak, udazkenak urtero zabaldutako tapizak. Haren gainetik jarraitu ezkerro, gaur egun Ataungo San Martin auzoa dagoan alderdira helduko nintzan, eta luzetu barik gainera.


Basoak, ostera, beste ezusteko bat emon behar eustan. Leku baten bideak bihurgune itxia egiten eban, harkaitz bat inguratzeko. Ha hartu eta mutiko bat aurkitu neban. Ahuntz argal bat eroian, sokaATEGAZ samatik helduta. Ikusi orduko alkarri begira geratu ginan, mutikoa ikaratuta eta ni harrituta, guztiz biak. A zelako itxurea harena! Samaldean txano

zabala eukan atorra moduko jantzi luzea eroian jarrita, dindirri bat, zoldaz eta urraduraz josita; garriko zabal batek, zabala eta zatarra, ezarri egiten eutsan gorputz mehari; eta, antza, baita ere atorrearen azpian eroan prakak, lohiak desitxuratutako artulezko prakak.

Une batez, harri eta zur, begira egon zan mutiko trauskila. Bat-batean, ostera, nire azterketea haren oinetara heldu baino lehen, sokeari indartsu tira eginez hanka egin eban. Amen baten bistatik galdu neban.

Aho bete hagin itzi ninduan. Baina, uneko harridurea gaindituta, tximistea moduan arin joan nintzan haren atzetik.

Arineketaldiak basoaren agerrune batera eroan ninduan. Haren erdian borda erako erai-kuntza bat egoan, arrunta oso, zabarra. Hormak harrizko eta buztinezkoak ziran, gainaldea zotalezkoa, eta aurrealdean zurezko ate bat eta leihatila txiki bi besterik ez ebazan. Zotaletan egindako zulo batetik keak urteten eban.



Bertara bideratu zan mutikoa, arineketa biziari eutsiz, ikareak hegoak ipinita hanketan. Txabolara heldutakoan, sorbaldeagaz ateari bultza eta, animalia gaz batera, barruan sartu zan.

Itsu-itsuan joan nintxakon atzetik, zuzen-zuzenean etxolarantz, txabola barrukoa edo barrukoak kontuan hartu barik. Halan ere, azkenengo momentuan, ate ondora heldu nintzanean, aldamenean egoan egur pilotik makila bat hartu neban badaezpada ere. Ha eskuan nebala ateari bultza egin neutsan.

Sartu orduko ia atzera egin neban. Txabolako giroak geratuazo egin ninduan. Itoga-rria zan, higuingarria, kiratsez betea. Estreina-ko bafadeak okada gogor bat eragin eustan. Larri ibili nintzan goragaleari eutsi ahal izateko. A ze higuina! Eta, antza zanez, bertan bizi zan mutikoa. Bera, bere familia eta... Begiak barruko iluntasunera egokitutakoan ohartu nintzan bai gizakiak eta bai animaliak danak alkarregaz bizi ziralta bertan. Txirotasunagaz batera, begi-bistan egoan, zikinkeria zan nagusi leku haretan. Hasieran, baina, itsututa egon nintzan, keak eta ilunpeak egindako atmosfereak itsututa; gerotxoago etxolako gauzak sortuz joan ziran, zirriborrotu sortu ere, barrualde ilunean. Zorionez, ez neban areriorik aurkitu; bai, ostera, bazter baten mutikoa ikusi. Bere ama izango zanaren ondoan egoan. Emakumeak ume bat eukan besoetan, eta ikaratuta begiratzen eustan, semeak lez.

Begirada bizkorra emon neutsan barruari. Anabasea zan nagusi, itzikeriagaz batera, jakina. Txabolako bazter baten bertakoen aziendea

egoan: hiru ahuntz, behi gosekil bat eta oilo batzuk; erdi-erdian, beheko su modukoa zana, harrizko esparru txikia. Honen gainean, sutik hur, lapikoa egoan, hiruoineko batetik zintzilikatua. Sabaian tximinia erako zuloa egoan. Edozelan ere, kerik handiena barruan geratzen zan, giro kiratsa handiagotuz.

Jainkoarren! Non nengoan? Zer ete zan ha: historiaurreko irudi bat beharbada? Bane-kian denporan atzera joanda nintzala, begibistan egoan, sinesgaitza bazan ere. Zein arotara, baina?

Ikaragarria zan!

Hotzikara batek burutik oinetara astindu ninduan.

Mogitzeko preminea neban. Makilea bazter batera bota neban. Gero, nire bake asmoa erakusteko besoak zabaldua, pauso batzuk emon nebazan aurrerantz.

—Ez izan bildurrik —esan neutsen aurrera ninoian bitartean—, ez dot ezelako asmo txarrik, zuekaz berba egitea, besterik ez.

Sinestu eidazue, ez dot asmo txarrik, benetan! Lagun baten bila nabil. Ikusi dozue? Ni lakoa da, berezia... zuentzako.

Axal hutsa zan andreak ez eban txintik ere esan, ezta jarrera aldatu ere, begiak zabal-zabalik begiratzen jarraitu baino. Azkenean, ostera, berba egin eban.

—Ikusten dozuna baino ez dogu —lapurtzat hartu ninduan itxuraz—. Beharra da etxe honetako nagusia. Erruki zaitez gutaz.

—Ez deustazu ulertu. Barrero esango deutsut, berba egin besterik ez dot gura, nire laguna ikusi dozuen ala ez jakin, horixe bakarrik. Ni ez naz lapur bat. Ulertzen?

—Jentila zara? —itaundu eustan emakumeak, zeozertxo nasaiago—. Itzuliak zarie atzera?

—Jentila?... Zer jentil eta zer jentil oste, ni beste garai batekoa izango naz, baina zeuek lakoa!

—Azti bat orduan?

—Ez, gazte arrunt bat. Zelan arraio uler-tuazoko neuskizue... Ez dozue ni lako bat ikusi?

—Athaunera eroan dabe —esan eban amaren magalean babesten zan mutikoak.

—Ataunera? Nork eroan dau?

—Gizonak, gizon gaiztoak, lapurren lagunak.

Ataunera... Tira, zeozer banekian, ordu erdi eskas eta helduko nintzan herrira... edo sasoi haretan zana zalakora. Baina gizon gaiztoak eroanda... Kezkatu egin nintzan.

—Gizon gaiztoakaz esan dozu? Zein gizon gaiztogaz?

—Athaungo gudagizonakaz.

—Gudagizonakaz?... Zein urtetan gagoz? —itaundu eta gero konturatu nintzan gizajo hareek nahikoa ebela urtaroaz ardura-tzeagaz, euren bizimodu latzak ez eukalako daten beharrik.

—Neguan gagoz —esan eban emakumeak—. Laster hasiko da eguna luzatzen.

Leku zikin haretan egindako egonaldia amaitzea erabagi neban. Ilundu aurretik mogidu beharrak lagundu eustan erabagia hartzen. Ez neban uste, gainera, gizajo hareek argibide gehiago emoteko gauza ziranik. Era berean, arratsaldeko haize hotzaren beharra neban, behar handia.

—Zenbat gizon ziran? —itaundu neutsan mutikoari.

Esku bateko atzamarrak erakutsi eustazan.

—Eta Ataunera eroan dabe —ekin nik.

—Bai, Athaunera. Gizon gaiztoak —mutikoak baieztatu.

Alde egin aurretik azkenengo begiradea emon neutsan barrualdeari. Gure garaiko kortak txukunagoak dirala pentsatu neban. Kanporatutakoan, arnasea sakon hartu neban eta, aspaldiko partez, baita atseginez ere ipar-haizearen hoztasuna.

IV ATXILOTUA

Txabolatik urten, arnasea sakon hartu, eta bizkor abiatu nintzan ibarrerantz. Ez ninoian sartu aurretik baino nasaiago, ezelan ere ez, mutikoaren berbak kezkatuazota baino. Gaiztoak, gudagizonak, lapurren lagunak... Ez neban tutik ere ulertzen. Ataungoak gaiztoak baziran, nongoak ete ziran zintzoak? Nongoak ete, era berean, lapurrak? Ha nahasmena!

— Nire susmoak nahiko ilunak ziran. Argitzeko gogo handia, gainera. Gizajo hareek ikusita, baina, gerorako itzi neban buruan pila-tutako itaun mordoa, herrian egiteko, basotik hur egoalako, bost bat minutura.

Baso ertzetik hobeto ikusi ahal izan nebazan ibarreko baserriak. Erdi ostenduta egozan zuhaitzen artean, sakabanututa ibaier-tzetan, eta lursail txikiak ebezan inguruan. Guztiz bereziak ziran, aurreratxoago ikusitako txabolea baino itxurazkoagoak bai, baina zabarrak: baserri baino borda itxura gehiago eben. Era haretakoak ez nengoan sekula ikusita, ezta antzinako argazki eta marrazkietan ere. Egia esan, ordura arte ez nintzan batere kezkatu arbasoen bizimoduaz, eta gitxiago oraindino euren etxeez, jakina. Edozelan ere, begien bistan nebazanek aditzera emoten eustan denporan sekulako jauzia egina nebala, itzela.

Urduri oso, bide zabalago batera heldu nintzan. Gurdi arrastoak nabarmenak ziran. Begien aurrekoa gogoan neukanagaz alde-ratuz, konturatu nintzan gaur egun San Martin auzoa danera heltzeko nengoala (egun San Gregorio eta Aia dira auzo nagusiak eta San Martin, zertzelan esateko, herri luzearen bizkarrazurra). Bertaratzeko, beraz, arboladi bat zeharkatu eta gaur kanposantua dagoan alda-pea jaitsi besterik ez neban egin beharko.

Baten bategaz berba egiteko gogo bizia neban (bildurra ere bai, jakina, eta ez txikia, dana esan behar badot), Mikel aurkitzeko eta baita behingoz korapilo ha askatzeko ere. Hau ez neban zaila ikusten, batere ez, balizko gizon gaizto eta guzti. Gerokoa, ostera, denporan zehar aurrera egitea kontizu, hori bai, ia ezinezkoa.

Pentsatze hutsak ulea lazten eustan. Zelan arraio...?

Halantxe nenbilela, gogoetakaz ekin bizian, zuhurtasuna guztiz galduta, bat-batean, plaust!, pago artetik sortutako lagun batzuk etorri jatazan gainera. Iraupen-senak aginduta aurre egin gura izan neutsen, egin ere (osti-kada galanta jaso eban batek), baina laster eratsi ninduen.

Hiru ziran erasotzaileak, gazte bizardun bi eta gizon adintsu bat, bizarduna ha ere, buru-zuria. Gazteak besoetatik eta hanketatik eusten eustien bitartean, besteak ezpata labur bat ipini eustan bularrean. Lehenengoak arlote samarrak ziran; ezpataduna, barriz, dotoreago

jantzita egoan, besteak baino txukunagoa ere bazan. Hirurak, baina, atorra moduko jakea, garriko zabala, artulezko prakak eta narruzko oinetakoak eukezan. Kinka larri haretan gogora etorri jatan Ataungo jaietan jentilen jaitsierea deritxan ikuskizuna.

—Mogitzen bahaz hireak egin jok —esan eustan zaharrak, ezpateari eraginez.

Sekulako bihotzondokoa emon eustan burdinearen mutur zorrotzaren ziztadeak! Odola izoztu egin jatan. Tentuz ibili behar neban, gizona ez ebilen brometan, ez horixe, prest egoan mehatxua beteteko. Begiak zabal-zabalik, ikareak eraldatuta, geratu nintxaken begira, berbarik plazaratu ezinik, estu-estu.

—Ez dot ezer egin —asmatu neban azkenean, ondo kostata, hori bai—, ez naz gaizkile bat, galduta dabilen gazte bat baino.

—Hago isilik —lehen baino lehorrago besteak—. Itxureak salatzen hau. Mendian izaki harrigarriak bizi dozak, eta hi haz horreetako bat, ez ahalegindu guri ziria sartzen.

—Oker zagoze, oso oker, euskalduna nozue, zuok lez, beasaindarra naz eta, goierri-tarra!! Jakingo dozue ba Beasain, nire herria, hemendik bost bat kilometrora dagoala, ezta? Ala Beasain ere... Hau zoramena! —jarraitu neban, kasik arrenka—. Benetan! Laguna eta biok Troskaeta kobazuloan genbilzala, jausi eta ez dakit zelan arraio zuen garaian azaldu gara, guzurra badirudi ere. Sinestu eidazue, haren bila nabil, nire lagunaren bila.

—Zulotu eiozu bihotza! —esan eutsan gazteetako batek, nire berbak bildurtuta itxuraz—. Aditu deutzazu. Lur barrutik ei dator... Tira, ez zalantzarik izan!

Egin egingo ebala iruditu jatan une batez, une luze batez, dudatan egon zalako. A zer larrialdia! Azkenik, buruari eragin, eta hauxe esan eban:

—Ez, deabru edo lur barruko izakia bada, lehenengo abadearengana eroan behar joagu, berak erabagi daian zer egin. Berak bakarrik jok ahalmena gu eta gutarrak izaki

gaiztoen madarikazinetik aske izteko. Jainkoaren babesetik alde eginak Haren zerbitzarien eskuetan itzi behar joaguzak, ez ahaztu.

—Azalduko deutsuet...

—Zer esan gura dok berba horregaz?
—hasi eta batera kendu eustan berbea buruzuriak.

—Azalpenak emoten izteko.

—Hago isilik lotsabako halakoa! Emongo deutsazak emon beharrekoari, baina eskatuta-koan bakarrik. Ordura arte hago isilik, deabru hori! Suak erakutsiko jeuskuk hire benetako izaerea, ez aho zikin horrek —orrea egin eban.

Eguzkia hodeiertzean galtzera joiala, ika-reak guztiz ahulduta ninduala, heldu ginan ibarrera, galdutako Ataunera. Eleizea gaur dagoan inguruan egoan orduan ere. Guztiz bestelakoa zan, baina, txikiagoa eta zurezkoa neurri handi baten; dorrea, barriz, zurez eta harriz eginda egoan. Inguruan bospasei baserri eta etxe bi egozan. Ez eukan zerikusirik nik ezagutzen neban San Martin auzoagaz, jakina;

baina, azkenean, kostata bada ere, itxurea hartu neutsan, batez ere inguruari.

Zuzenean eleizara eroan ninduen. Ez neban arimarik ikusi baserri inguruetan, txakur argal batzuk besterik ez. Hotzak, itxuraz, etxeratuak ebazan bertakoak. Zabaldu ebenean aiene zorrotza egin eban eleizako ate sendoak. Bultzaka zeharkatu neban. Barrua iluna zan; bildurgarria oso, isiltasuna. Aldare inguruan argi dardarati bat egoan, gainerakoa ilunpetan.



Ilunpeetatik sortu zan barrua besteko goibela zan gizona, baltzez jantzitako gizaseme argala eta luzea, itxurearen arabera abadea zana. Patxaroso hurreratu zan gengoan lekurantz. Ni ikusita zur eta lur geratu zan.

—Hara! Baina, baina...? Aitearen eta semearen... —esan eban harrituta, deabruaren aurrean egongo balitz lez—. Non harrapatu dozue?

—Pikandieta inguruan. Lur barrutik eitor. Oihuka ibili da guk harrapatu aurretik —esan eutsan taldeburuak.

—Lur barrutik?! Jainkoak lagun deigula! Lur barruko bat! Deabruaren seme bat, garbi dago, ikusi besterik ez da egin behar. Hori itxurea, hori! Jainkoaren izenean!

—Zer deabru eta deabru ondo! —esan neban, haserre eta bildurtuta, ozenki—. Kristaua naz, zeuok lez!

—Kristaua...? Hago isilik deabru halakoa! —ni baino ozenago abadeak—. Ez aitatu

ere egin ilunpeetara jaurti hinduanaren izena, kendu egik aho pekatari horretatik!

—Bota daigun sutara —gazteetariko batek.

—Ez, ez Lazkaoko Jauna ikusi baino lehen. Ergoena inguruan dabil, nappar-lapurren bila. Etorri arte eleiz-dorrean sartuko dogu, ez dau alde egiterik izango, hegorik ez dau-eta gora egiteko.

Lazkaoko jauna. Aldameneko herriko jaunaren jopu izango ete ziran ataundarrak? Ergoetan baebilen, gu gengoanetik bost bat kilometrora ebilen, Ataungo beste auzo baten. Gogora etorri jatan bertako sagardotegia, Aitor eta biok behin baino gehiagotan izandako sagardotegia, jakina.

—Beasaindarra naz baina! Beasainen Igartzeta jauregia...

—Isiltzeko!! Zer gura dok, Igartzako aititen semea nahastu, Igartzakoen izen garbia hire berbaz zikindu? Lotu eizue zutabeen eta deitu auzotarrei, eleizkizun berezia egingo

dogu Jaungoikoaren gogoia bete arte, gizaki honen gaizakeriatik gorderik egon gaitez. Bizkor, egin daigun ilundu aurretik.

Agindua bete eben. Luze barik hasi ziran bertaratzen ingurukoak. Ni ikusi orduko otoi-tzak marmartzen hasten ziran, zeharka begiratzen eustien, guztiz ikaratuta.

Ni gero eta harrituagoa nengoan. Igartza aitatu eban abadeak. Ha ere ezagutzen neban, jakina, nire herriko jauregi zaharra zalako, Beasaingo monumenturik zaharrena, polit askoa, zorionez hondamenetik oraintsu salbatua. Zer saltsa zan ha, baina?

Eleizkizuna amaituta, agure, andrazko eta umeak bizkor aldendu ziran. Dozena bat lagun geratu ziran eleizan, ostera, biribil bat eginda ahapeka berbetan, abadea buru zala. Amaitutakoan, kontu handiz zutabetik askatu eta dorrean sartu ninduen. Besoak eta hankak loturik, bazter batera zakar jaurti ninduen. Gero atea trangatu eben.

V IHESALDIA

Depora luzean egon nintzan ikareak hartuta, bildurak eta hotzak gorputza dardarka jarrita, etorkizuna dorre ilun ha baino ilunagoa nekusala. Gauzak argitu beharrean iluntzen joatazan, kezkak gehituz eta adorea gitxituz, tamalez. Jada ez zan Mikel aurkitu eta denporan zehar zelan bidaiatu arazo nagusia, sutan kiskalia ez izateko zelan urten eleiz-dorretik baino.

Zerbait egin behar neban. Hanka, jakina. Zelan, baina? Nondik? Ikaragarria zan, tamalgarria nire egoerea, baina oraindino tamalgarriagoa izango zan hurrengo egunean, ziur.

Mikel etorri jatan gogora. Non ete ebilen? Nire harrapatzaileak ez eben aitatu ere egin, ezta abade goibelak ere, nire harridurarako. Eta garbi egoan, ez neban zalantzarik egiten, ni lez baten batzuen atzamarretan egoala. Baina non?

Ha nahasketa, ha!

Halako baten, hotz eta guzti, suaren berotasuna sentitu neban gorputzean, aditua neban inkisizioaren sua-edo. Honek berotu ninduan, egoera geldotik urteten lagundu eta kinka larriari egokitu, adore apur bat emonez.

Ahalegindu nintzan ingurua aztertzen. Kosta ahala kosta gitxi gorabeherako krokis bat egin neban neure buruan. Dorrea koadratua zan oinean, hiru bat metro ebazan zabaleran, eta, esan lez, zurez eta harriz eginda egoan. Goialdean, kanpaiaren gainean hain zuzen, teilatu moduko estalki zorrotza eukan, baina alboak edegiak ebazan, eta inguruan pasabide estu bat, oso oker ez banengoan. Igoteko erabilen eskailera luzea kanpoan itzi eben ni

sartu eta gero. Alferrik zan, bestalde, atetzarra zabaltzen ahalegintzea. Beraz, urtenbide bakarra hormatik gora eginez egoan, hormetako koskaz edo urtengunez baliaturik. Zoritxarrez, ahalegindu arren, goialdetik sartzen zan argitasun apalak ez eustan aukerea emon urtenguneak zelakoak ziran antzemoteko. Baina alde egitekotan, garbi egoan, ha zan bide bakarra. Bakarra eta arriskutsua, bene-benetan!, hogeit bat metro igon beharko nebazalako, guztiz ezezagunak eta ia itsuka, eta polikiroldegian edo mendian ez lez esku hutsik, ezelako segurtasun-tresnarik erabili barik.

Urrunera joana nintzan asmoakaz. Lehenengo hanka eta eskuak askatu behar nebazan, jakina. Eta ha ere, jakina, lan gaitza zan, lokarriak sendoak ziralako, gogorrak.

Beheralditxo bat izan neban. Orain gitxiko adore apurra kili-kolo jarri jatan. Ha kinka, ha! Hasi orduko etsipenean jausteko zorian. Egia esan, ez zan gitxiagotarako, arerio bilakatutako mundu ezagun eta aldi berean guztiz ezezagunean galduta nembilelako.

Kinka larrian!

Zorionez, gau haretan, ustekabeko adiskide batek lagundu behar eustan sutatik alde egiten. Ustekabeko adiskidea, kinka larri haretatik urteten lagundu behar eustana, ilargia izan zan. Halako baten, behetik ikusten neban zeru zatian agertu zan, eder-ederra, bere osotasunean urrezko domina bihurtuta, eta handik bialdu eustan bere argitasun apala, apala baina salbagarria. Ozta-ozta iritsi zan ni nengoanearaino, baina nahikoa izan zan bazter baten egoan motxilea ikusteko, ahaztuta neban motxilea. Larrialdian ez nintzan konturatu ataundarrak dorre barruan itzi ebela. Ikusi orduko argitxo bat isiotu zan nire barruan. Berehala, itxaropena berbiztuta, arrastaka joan nintzan bazterreko multzo ilunerantz.

A ze poza! Mendiko labana aldameneko zorroan egoan. Antza zanez, zorionez niretzat, gizon sinesbera hareei bildurra emon eutsen infernuko tresnea eitekeanean eskua sartzeak. Hobeto!

Gainerakoa uste baino errezago gertatu zan, erreza izan ez bazan ere: ekinaren ekinez labana atara, mutur zorrotz biak edegi, eta bat lurrean sartu ondoren, besteagaz lokarriak ebagiten ahalegindu nintzan. Ez neban berehala lortu, jakina, baina azkenean lortu neban. Besoak aske, bihotza esker onez gainezka, mosu bat bialdu neutsan ordurako ezabatuta egoan gaueko erregineari. Gero hankak askatu nebazan.

Lokarrietatik libre, nondik norakoa aztertzeari ekin neutsan. Hozmindutako atzamarrak berotu bitartean (behar beharrezkoa zan hormatik gora igoteko), beroni begira egon nintxakon zati batean, motxilan neukan linterneak lagunduta. Banebazan, euki, ziri batzuk, baina ezinbestean bakarrik erabiltea erabagi neban, ahalik eta isilen gainditu behar nebalako horma luzea. Gaindigarri zirudian, bestalde, erreza ez izan arren, baina zuhur eta hotz jardun ezkeru heldu neitekean kanpai ondora. Ziriak emongo ez eusten laguntzea motxilan neukan erretxinak emongo eustan.

Lehenengo urtenguneari heldu neutsanean esperientzia handiko mendizaleen gomendioari jaramon egitea erabagi neban eguna bedeinkatu neban. Egia handia dalako esaten dabena, hau da, premiazko gauzen zamea eroangarria dala. Hara han frogatzeko aukerea! Eta geroak ere baieztatuko eustan, jakina, gura baino sarriago gainera, egun zoro hareetan.

Dozena erdi metro gora eginda, zuhurtasunak halan eskaturik, argi egon nintzan tarte txiki baten, ea eleizan hotsik aditzen neban. Isiltasuna guztizkoa zan, ostera, ikaratzeko modukoa. Kanpotik ere ez zan zaratarik entzuten, hotzak gordelekuetan ebazan, itxuraz, gaueko izaki guztiak.

Era haretan aurre emon neutsan ordura arteko nire eskaladarik garrantzitsuenari. Euskarriak nahiko onak ziran. Beraz, hareek eta eskaladako erretxinak lagunduta, uste baino errezagor joan nintzan oztopoak gainditzen; halan ere, azkenengo zatian, hotzak eraginik, baita nekeak eta beharbada bildurrak ere, igoreea nekoso bihurtu zan, arriskutsu.



Bitan izan nintzan jausteko zorian. Lehenengoan, oin bat airean nebala, zart!, bestea laban eta esku batetik bakarrik zintzilika geratu nintzan, diranak eta ez diranak egiten jausi ez neitean, atzamarretan eta besoan min ikaragarria nebala; bigarrenean, eskaladea burututa, edo halan uste behintzat, pasabidera helduta beste aldera pasatzeko unean, orekea galdu eta besoei eraginez egon nintzan, gorputza hutsarterantz joatala, harik eta azkenean barandeari eutsi ahal izan neutsan arte.

Leher eginda heldu nintzan gainalde estura, hotz eta guzti izerditan blai, izerdi tanta lodiak bekokitik behera, bihotza danba-danba bularrean, arnasbehartuta.

Nasaitu bitartean, nengoan talaiatik aha-legindu nintzan ingurua arakutzen, ezer gitxi lortuz. Gaua oso iluna ez bazan ere (ilargi adiskidea harro egoan zeruan kokatuta), ez neban ezer berezirik igarri haren argi motelaren azpian, inguruko etxeen gainalde ilunak bakarrik.

Dana dala, ez eban emoten kanpoan areriorik nebanik. Beraz, gerotik gerora ibilteko astirik ezean, Jesus baten ekin neutsan hurrengo pausoaren prestaketeari. Eskaladako soka mehea atara eta, harek lagundurik, rappela baino gehiago hegalditxo bat eginez, ezelako arazo barik lurreratu nintzan. Sokea berreskuratuta inguruko etxeetatik urundu nintzan.

VI LAGUNA

Noraezean ibili nintzan hasieran. Bat-batean, txakur bat zaunkaka hasi zan, nengoanetik ez oso urrun. Berehala beste batek erantzun eutsan. Ikaratu egin nintzan. Ez jatan komeni gau guztia itsu-itsuan hara-hona ibiltea. Arriskutsua zan eta, gainera, nekaturik nengoan, atsedeen hartzeko premian. Hotza, bestalde, ikaragarria zan. Babeslekuren bat topatu behar neban, goizaldera arte behinik behin.

Zaunketatik aldendu nintzan bide-zidor batetik. Tarteka linternaz baliatzen nintzan, ahalik eta gitxien eta argi-sortea nabarmentzen

itzi barik. Halako baten, sagasti baten Erdian, txabola baten ziluetan ikusi neban. Hutsik baegoan, ha izan eitekean bila nenbilen gordelekua. Linternea amatatuta hurreratu nintzan badaezpada. Aldamenean leiho moduko edegidurea egoan. Bihotza airean, linternea isiotu, eta edegiduratik barrura bideratu neban argia. Bedarra besterik ez egoan barruan.

Pisu handia gaintetik kenduta, beharrezko atsedenen eta epeltasunaren gertutasunak zurezko ate traketserantz bideratu ninduan, barruratzeko gogo biziz.

Gauak, baina, amaitu ezinezko ezuste katearen hurrengo mailea erakutsi behar eustan. Eta ez zan ha azkenengo aldia izango, arranpola!, orduan jakin ez banekian ere.

Izan ere, ateari astiro bultza egiten nihatzen, baten batek sekulako bultzadea emon eustan. Arineketa baten atea zeharkatu eta buruz behera jausi nintzan bedarretara. Linterneak zilipurdi bat egin eban airean lurra jo baino lehen. Hankaz gora lurrean, linternearen

argi-sortea neureaganantz bideratuta ikusi neban, ring bateko fokoa balitz lez.

Sekulakoa emon eustan bihotzak!

Argiari esker ikusi ahal izan neban gainera etordan gerizea. Aldamenera egin eta jazarlearen hutsaz baliatu nintzan zangotrabatzeko. Amen baten nire azpian neukan, besoetatik helduta eta hankea haren bularraren gainean jarrita, belaunagaz presioa eginez mogidu ez eitean.

Halantxe amaitu zan borrokoa, hain modu errezean, guzurra badirudi ere. Harritu egin nintzan. Egia esan, erasoari nahikoa erantzun bizkorra emon neutsan; baina, halan ere... Harritzekoa zan, ostera, trabatua neukan gizonaren gelditasuna. Berehalaxe jakin behar neban zergaitia.

—Banekian gizon aparta zinala, Aralarko Aingeruaren laguna, lurreratutako aingeru bat —esan eban guztiz harrituta.

Zer zinoan? Zer ikusten eben niregan zoro hareek? Janzkereak ahaltso bihurtzen ninduen akaso? Burutik jota egozan?

Zana zala ere, haren berbak nasaituta, eta kontu handiz, esku bat luzatu eta linternea eskuratu neban azpian neukana hobeto ikusteko asmoz. Argiaren zirkuluan haren aurpegia agertu zan. Gaztea zan, ni baino zeozertxo zaharragoa bakarrik, eta bizar laburra eukan, sendotzen hasi bakoa. Mutil sendoa emoten eban. Horregaitik neukan harrituta haren gelditasunak.

—Ez naizu hil —esan eustan—, parkatu nire ausardia, ez neutsun kalte egin gura-eta. Nahita ere, jakina, ezin egin izango neutsun.

—Jainkoarren! —esan neutsan, ni ere guztiz harrituta—. Zorioneko Ataun honetan zoratu egingo naz, zoratu behar nozue. Aurrekoak azti eta deabruzat hartu nabe eta, orain zuk, Mikel Deunaren laguntzat. Ez dakit dagoaneko ez ete nazan zoratzen hasia. Zelan demontre esango deusuet gazte arrunt bat nazala?! Euskeraz? Gaztelaniaz? Ingeleseaz akaso? Tira ba: Aitor da nire izena. Me llamo Aitor. My name's Aitor. Ulertzen? Beasaindarra naz, beasaindarra! Bai, hemendik bost kilometrora

bizi naz, edo... bizi behar neban, zoraldi hau gertatu ez balitxat. Hau da, hau!

—Zure laguntza behar dot, horregaitik ibili naz zure atzetik —gaineratu eban, eta ha errematea izan zan.

—Harrigarria! Zer eta nire laguntza eske etorri! Hau ere entzun behar! Nik ez dakit zelan nagoan, beharbada ondo ez; orain arte ezagututako danok, ostera, burutik jota zagoze, ez dot dudarik egiten. Dan-danok! Nire laguntza gura eta lortzeko ezin era hobea aurkitu eraso egitea baino. Ez dago zu lakorik!

—Ez zan nire asmoa kalte egitea, sinestu eidazu, zure ahalmena ziurtatzea baino. Elbarrakoak zu harrapatzen ikusi dodaz. Orduz geroztik zelatan ibili natxatzu. Ez esan aparta ez zaranik, ez ukatu ikusi ahal izan dodana: zelan ez dakit, baina hormetatik gora egiten badakizu, behera ere errez; argia sortzen ere bai, eta nahi lez erabilten dozu gainera, handitu eta txikitu, hara-hona bideratu, ezabatu... Zeruko Ahaldunak bakarrik emon daikez

gaitasun horreek. Beraz, bihozkada batek esan deust ez zinala aingeru txar bat, eta ez nabil oker.

—Uf! Hau zoramena! Eta ez dakit zergaitik, baina alferrik da azalpenetan hastea —esan neban marmarka—, alfer-alferrik!

—Zure janzkerea bitxia da, berbakerea ere bitxi samarra, eta hizkuntzak ez jatzuz arrotzak... Izaki aparta zara, benetan! —mirespena eta harridurea nabarmenak ziran haren berbetan—. Etxetik urten dodanean laguntza eskatu deustat Jaungoikoari, laguntza kanporatu nauan xedea burutzeko, eta nire bidean jarri zaitu. Zuk lagunduko deustazu! —ez nekian zertan, baina mutilaren berbetan ez egoan duda izpirik.

—Tira, itxi atea eta berba egingo dogu. Baita zeozer jan ere lo egin aurretik. Gose naz, tripa-zorriak aspaldi itzartu jataz.

Atea itxi eban. Txabolea arakatu genduan ezer aurkitu barik. Bedar lehorra besterik ez egoan, baina ez zan gitxi gure egoeran, gaua

pasatzeko ohe bigun eta epela izateko aukerea emongo euskulako. Barruan ere giro hotza zan, jakina, baina atsegina kanpokoagaz alde-ratuz. Alde handia egoan.

—Tira, ez nago barriketan jarduteko moduan —esan neutsan liluraturik eukan linternearen argiagaz bazterrak miatu eta gero—. Dinozun lez laguntza bila bazabilz, ez zara bakarra, ez horixe, niri ere akaso ez jat txarto etorriko zurea. Beraz, ezer egin baino lehen, hobeto gauzak argitzea. Zer laguntza mota behar dozu?

—Zegamako Ladron zaldunaren alaba gaztearen bila nabil. Badakizu non dagoan Zegama?

—Zelan ez dot ba jakingo! Ez deustut esan Beasaingoa nazala! Nire herritik hamar bat kilometrora dago Zegama. Ondo? Ala garai honeetan Aizkorri mendizerraren magalean egon beharrean beste lekuren baten dago?

—Ez dakit kilometroak-edo zer diran, baina zuzen zabilz, Zegama Aizkorriren oinean

da, Beasaingo Igartzatik legoa bira. Lehen-
gora itzuliz, barriz, esan lez, neska baten bila
nabil, eta oker ez banago inguru honetan egon
behar dau. Larraza etxeko seme batek bahitu
(Larraza Ataungo etxe nagusienetariko bat da)
eta hona ekarri dau, nahitaez ezkonduazoteko
asmoz. Neskearen aita Oñatin dago, horretaz
baliatu da mutil zitala bahiketea burutzeko.
Itzuli aurretik gura neuke askatu, odola isur-
tzen hasi aurretik, erruz isuriko dalako haren
aitak barri latza jasotakoan. Eta larregi isuri
da dagoaneko gure lurretan.

—Nor zara zu? Goazen pausoz pauso.

—Diego Lopez Artubikoa naz, zegamarra
ni ere. Ines eta biok, hau da bahituta dagoa-
naren izena, alkar maite dogu. Baina, egia esan,
eragozpenak besterik ez doguz aurkitzen gure
hartuemonak sendotzeko. Haren gurasoak
zaldun bat gura leukie senartzat; ni, oster, etxe
oneko mutila izanik ere, ez naz zalduna. Aska-
tzea lortuko baneu, oster, akaso beste begi
batzuekaz hartuko ninduke Ladronenean.

Beharbada odol-isurketa bat ere galazo ahal
izango neuke.

—Odola dinozu? Zer dala eta hain sarri
isuri? Gerran zagoze ala? Bazagoze, noren
aurka? Zergaitik?

Harriturik geratu jatan begira, nire ezja-
kintasunak harritua itxuraz.

—Ez dakizu ala...? Urte mordoa daroe
Ahaide Nagusien leinukoak alkarren artean
borrokan, gorrotoa eta hondamena gure lurral-
dean zabaltzen. Batzuk Gaztelako erregearen
alde dagoz, beste batzuk Nafarroakoaren alde;
batzuk, gaur lagun bihar arerio... Ez da errez
ulertzen, baina gatazkea ez da eteten, ez horixe.
Bitartean, herri xeheak nozitzen dauz gale-
rak... eta gosea; hau, berez handi samarra,
handiagotuz doa. Harritzen nau, oster, zelan
ez dakizun...

—Ea ulertzen duzun... —ez zan nire
asmoa, baina azalpen bat emotea beharrezko
iruditu jatan, nire berbak ulertzeko gai izango
ete zan zalantzea neukan—. Ez dakit zelan

baina denporan atzera egin dot eta, oker ez banago, Erdi Arora heldu naz, Erdi Aroko Ataunera. Baina ez itaundu zelan, alferrik da, ez dakit eta.

—Erdi Aroa dinozu? Athaun?... Gaztelura esan gura dozu?

—Zer gaztelu eta gaztelu ondo! Hona, gagozan herrira, Atauna!

—Hau Elbarrena da. Athaun, barriz, mendi ganean dagoan gaztelutxo, nafarren dorre zabala —esan eustan serio-serio, ene ezjakintasunak barriro ere harrituta.

Ez neban piperrik ere ulertzen. Jakinazo neutsan. Mutila ahalegindu zan gauzak argitzen. Lortu ere, zeozer!

Athaun (halan agertzen da idazki zaharretan gaztelu edo dorrearen izena) ez zan, nik uste lez, herria edo baserri multzo txikiaren izena, handik hur, mendi gailur baten egoan gazteluarena, edo, zehatzago, dorrearena baino. Gu gengozan alderdiari Elbarrena esaten eutsien eta, berau eta Ergoena ziran gaur

egungo Ataunen mugetan egozan auzo bakarrak.

Orduan bai, orduan hasi nintzan gauzak argiago ikusten, denporan egindako jauzia neurtzen: sekulakoa zan! Eta abentura harrigarria amaitu eta gero, jakin dot, harek aitatu-tako mendi gailurrean, aldapa piko baten buruan, oraindino ere dorrearen aztarnak ikusi daitekezala.

—Zein mendetan gagoz? —itaundu neutsan jakinminez.

—Karlos da errege Nafarroan, bigarrena; Gaztelan, berriz, Juan, lehenengoa —erantzun berak, urtea aitatu barik.

Orduan, ez banekian ere, 1380. urtean nengoan, gitxi gorabehera. Dorrea, dinoenez, laurogeita hamarreen bota eben, Nafarroako Erregeak halantxe aginduta.

Sinestezina zan!

Institutuan emondako lana etorri jatan gogora. Ikaragarria! Erdi Aroan nengoan, Gipuzkoako Goierrin, eta eskualdean Segurak

eta Ordiziak bakarrik (gaur dagozan beste herriak artean ez) eben herri-egiturarik garai haretan. Edonondik begiratuta ulertezina zan biziten niharduan abenturea... edo desbenturea, batek daki zer!

Orduantxe umearen berbak gogoratu nebazan. Gizon gaiztoak, lapurren lagunak... Mikel eroan ebenak etorri jatazan gogora.

—Begiratu —esan neutsan gauzak guttiz argitzeko asmoz—, nire aldian, orain gagozan alderdian dagoan herriari, Elbarrena, Ergoena eta beste hainbat auzoz osotutako herriari, Ataun esaten deitsagu. Eta orain Igar-tza dagoan inguruan dagoanari, barriz, Beasain. Ulertzen? —haren adierazpenak ezetz esan eustan, tutik ere ez—. Tira, itzi daigun geografia ikastaroa eta gatozen harira. Nortzuk dira gazteluko jabeak? —Mikel han egoala ziurtzat joten neban.

—Nafarrak, jakina, erregearen gizonak.

—Erregearen gizonak lapurrakaz zerikusia dabe ala? Zelan...

—Zergaitik ez? Bizi garan gose-aldian ez harritu. Ugari dira lapurrak. Beharbada euren mugetatik etorritakoei noiz edo noiz lagundu deitsiee. Lapurretak eguneroko lelo dira, tamalez. Zaldunen mutilak ere behin baino gehiagotan...

—Nire laguna gaztelura eroan dabe, ziur nago orain. Goizaldean bertaratzen lagunduko deustazu?

—Ihes egingo dau, zuk lez. Ahaltzuak zarie —harritzekoa haren segurtasuna—. Eta niri, ez deustazu lagundu behar?

—Bai, jakina, baina bi baino hobeto hiru izatea. Ezta halan?

—Ez dago sartzerik gero! Ez dago... atetik ez bada.

—Bertan ikusiko dogu. Ez ahaztu ahaltsua nazala —tripa-zorriak eraginda, luzatzen joian barriketea laburtzea erabagi neban, bestearen ustea nirea eginaz.

—Ondo. Honezkero hanka eginda izango da, ikusiko dozu. Ez dakit zelan harrapatu daben, benetan.

—Ez ahalegindu, ez zeunke ulertuko. Orain jan daigun zeozer, eguna luzeegi suertatu da-eta —alkarrizketea amaitutzat emon neban.

Motxilatik txokolatea eta fruitu lehorrak atera nebazan; lagun barriak, barriz, narruzko zorro batetik, gaztaia eta ogi zati bat. Txokolateari begira geratu jakon. Mesfidati ahoratu eban. Gozotasunak berehala ezabatu eutsan mesfidantzea. Kantinplorak ere bere jakinmina isiotu eban.

—Zer da jaki hau? —ahoa txokolatez beteta itaunduz.

—Esne eta kakaosz egindako jakia.

—Kakaosz?

—Amerikako arbola baten hazia da.

—Amerika?... Non da lurralde hori?

—Urrun oso. Itsaso zabal bat zeharkatu behar da. Baina, tira, itzi daigun gaia beste bate-rako, bestelan... Jan daigun —ez neban batere gogorik amaituezinezko azalpenetan hasteko.

Ogia guztiz berezia zan. Gaurko integralaren antzekoa baino gozoagoa. Halan ere, aurreko arrazoibideari jarraitu, momentuz ez neutsan haren osogaiez itaundu. Nekatuegi nengoan begiak denpora luzeagoan zabalik eukiteko. Lokartu aurretik, baina, zegamarrak bere ardurea azaldu eustan, hau da, bahituaren familiaren mendekuari eutsan bildurra. Bere esanetan, basakeria franko gertatua zen leinuko-en borroketan, errukibakoak ziralako. Hilketak eta erreketak sarri eta ohikoak ei ziran. Neskea askatu eta gero ere, ez eban dudatan jarten askatuko genduanik, bildur zan mendeku egarriak ez ete ebazan Oria eta Agauntza ibaien urak zipriztinduko.

Nekeak, azkenean, bere legea ezarri eban biok loaren mundura bialduz. Bedarrezko ohea zoragarria iruditu jatan.

VII JENTILBARATZA

Ametsetan nenbilen lagunak itzartu ninduean. Ametsa ez zan gozoa, ez horixe, erre-
alitatearen isladea baino: Mikel eta biok nora-
ezean genbilzan Ataunen zehar, gure garaira
ezin itzuliz, itzulbidea asmatu ezinik. Ez gen-
duan lagunik, eta bai arerio ugari, azti, deabru,
jentilak... ginalakoan. Tamalez, lagunaren asti-
naldiak logaitza benetazko bihurtu eben.

Begiak edegitea ez jatan erreza egin.
Behin eta barriro astindu behar izan ninduan
Diegok. Azkenean, begiak guztiz zabaldu barik,
begira geratu nintxakon. Eguna laster argituko
eban. Hormako zabalduatik balztasun maiztua

sartzen zan, egunsentiaren hurtasunaren seinale nabarmena. Lagunak, erdi gerizpetan irudi iluna, keinuen bitartez adi egoteko adierazten eustan. Zentzumenak zorrozten ahalegindu nintzan. Oinotsak ziran. Txabolarantz etorren baten bat. Heltzeko egoan! Egoerearen larriak guztiz itzartu ninduan. Jesus baten Diego eta biok atearen alde bietan jarri ginan zelatan. Bihotza airean jarrita; ni, behintzat.

Egundoko ezustea hartu eban gizonak! Atea edegiaz batera, begien itxi-edegi batean, gainera joan eta bota egin genduan. Linternearen argiak bildurrak zurbildutako aurpegi zigortu bat jarri euskun agerian, nekazari adintsu baten aurpegi zikina. Ni ikusita ikarea handiagotu egin jakon. Dardarka hasi zan haren gorputz meharra.

—Jainkoaren izenean!... Alde egin dozu! —esan eustan totelka, ekusana ezin sinistuz—. Zelan egin...? Hegaka beharbada? Hormetan zehar akaso?... Zelan bestelan inor ohartu barik? Ene, errukitu zaitez gosea besterik ez

daukan gizajo honetaz, ez eroan zeugaz nire arima pekataria. Arren!

—Zagoz isilik, eta entzun adi —esan neutsan barriketan hasteko gogo barik—. Zuk edo zuetako inork ez dau ikusi ni lako beste bat? Inguruan ebilen atzo, eta, esan deustie-nez, soldadu batzuekaz joian.

—Elbarrenan ez dago arma-gizonik. Gure jendea Ergoena aldean dabil, Lazkaoko jaunagaz nafar-lapurren atzetik. Inguruan dagozan arma-gizon bakarrak Artxabaletakoak dira.

—Artxabaletakoak? —itaundu neutsan harrituta.

—Horrexek. Gaztelukoak.

—Athaungoak orduan.

—Berberak.

Orduan konturatu nintzan gaztelua non egoan kokatuta, nik Jentilbaratza izenagaz eza-gutzen neban alderdian hain zuzen, Artxabaleta deritzan haitzean. Harriturik geratu nintzan hain paraje malkartsuan gaztelu bat izan eitekeala jakitean. Ez zan oso handia izango.

—Lagundu gaztelura hurreratzen eta etorri lez itzuliko zara etxera, oso-osorik, kalterik jasan barik —esan neutsan, Elbarrena inogaz aurkitu barik zeharkatzeko baliotsu izango jakulakoan—. Zu, beste kontu bat, badozu barririk Larrazako mutilak Zegama aldean eginaz? —egin neutsan Diegok begietan idatzita eban itauna.

—Zeozer zabaldu da, bai. Neska bat eka- rri ei dau etxera. Dana dala, Ergoena aldean dabil... —pentsakor geratu zan—. Bai, bai, halantxe da... Baten bati entzun deusat bera- gaz eroan dauala neska gazte bat. Apetatsua da mutila, baita mesfidatia ere, oso. Ez dakit ezer onik ekarriko ete deusan bere etxeari.

—Esandakoa —heldu neutsan aurrekoari, denporea galdu barik eguna urratu aurretik abiatzeko—, lagundu gaztelura ezkutuan heltzen eta libre geratuko zara. Hori bai, gero ahoa itxita euki badaezpada, bestelan...

—Ez kezkatu, eroango zaituet mendian gora... eta ez dot txintik ere esango, bene-

tan! —bildurtuta egoan, baina pozik, nire ber- bak poztuta, onik urteteko itxaropena isiotuta.

Diego begira neukan, baina, begietan itaun bat ebala, itaun ulergarria. Abiatu aurre- tik argitu gura izan neutsan zalantzea.

—Gero zurea, ez kezkatu, gaur bertan.

Gogoko ez bajakon ere, gizonaren leial- tasuna bildurraren bidez geureganatu guraz, lintertea han-hemenka erabili eta gero, motxi- lan neukan metxeroa hartu eta, eskuan oston- durik, isiotu egin neban. Sua esku artetik berez sortzen zala zirudian. Gizajoa! Ikustekoa izan zan zaharraren ikarea. Nire lagunaren harridu- rea ere, ez zan txikia izan, ez horixe.

—Hara, suaren jabe ere bazara! —zaha- rrak ikaratuta.

—Hori ere bai! —lagunak.

—Argi ibili, ba. Tira, goazen eguna urratu aurretik, bizkor!

Abiatzeko prestaerakaz batera zeozer jan genduan. Janaria eskuratzerakoan Coca-Cola pote bat aurkitu neban. Tapoitxoari eragin

neutsan. Poteak putz egin eban. Zipriztinak zalapartatsu aireratu ziran. Jakina, zelako harri-durea eragin eban! Aurrean nebazan lagun biak begiak zabal-zabalik geratu jatazan begira. Edan egin neban. Gero Diegori luzatu neutsan potea. Errezelo handiz hartu, apur baten begira geratu, baina azkenean edan egin eban. Eta gustukoa izan, antza. Nekazariak, ostera, infernuko isurkaritzat hartuta itxuraz, besoak luzatu ebazan, latea urrun euki guraz.



—Zer da hau, paradisiko sagardoa akaso? —itaundu eustan zegamarrak.

—Edo infernukoa —ataundarrak, guztiz ikaratuta.

VIII ATHAUN

Behe-lainoa zabaldua egoan Agauntza ibaiaren luze-zabalean. Izara trinkoak, azkenengo ilunbeakaz nahastua, bazterrei zikin-itxurea emoten eutsen. Batutako dana zirri-borro bihurtua eban. Apurka-apurka, ostera, zuritiesuna nagusitzen joian, baina trinkotasuna galdu barik. Metro barrukoa izan ezik, beste guztia iruntsi egiten eban, estalki zuri azpian ezabatu.

Bildurrak hankak bizkorturik, okerrik egin barik eroan ginduzan zaharrak, lehenengo auzoan zehar eta gero aldapan gora mendi ton-torrerantz. Baso baten ertzetik gaztelua ikusi

genduanean, zurtasunean zirriborro bat zala, gizon ikaratuak askatasuna berreskuratu eban. Gu, nondik norakoa aztertzearren, zuhamusken artean ezkutatu ginan.

Lainoan difuminatuta, itsaso zurian flotatzen, enbor eta harriz egindako dorrea aurrez aurre izan genduan, harro 'eta desafiatzaile mendi tontorrean. Ertz baten egurrezko dorre bat egoan. Han egoan, seguruenik, zelataria, lainoan ikustezin, gu lez.

—Ez dago sartzerik —esan eustan aha-
peka Diegok.

—Badago —erantzun nik—, murrutik
gora, atzealdetik.

—Zuk beharbada bai, ahal izango dozu;
nik, barriz, ez.

—Zuk ez daukazu sartu beharrik. Geratu
zaitez hemen, ni joango naz. Ez da erreza
izango, zeruko eta lurreko laguntza beharko
dot ez huts egiteko; eta halan ere...

—Ez dozu hutsik egingo, zerukoagaz
nahikoa dozu —itzela zan nire balizko ahalme-
netan eban konfiantzea. Ez ekian ondo...

—Tira, ba, banoa —esan neutsan—, lai-
noak arintzen hasten badira akabo, ezin izango
naz zaindariak ohartu barik sartu.

Itzulinguru handia emonez, aldapa pikoa
zala-eta hainbat lekutan lau oinean ibiliz,
hurreratu nintzan dorrezaingotik urrunen egoan
alderdira. Amildegirantz emoten eban, inor gi-
txi sartzan ausartuko zan harritzarantz. Begi-
rada bizkorra emon neutsan begi-bistakoari.
Aukera haretan ere, ziririk erabili ezean, erre-
txinea ezinbesteko jatan izotzak labankor
bihurtutako murrua gainditzeko.

Goiza hotza zan, ikaragarri hotza, tenpe-
raturea zero azpitik bost bat gradutan jotan
neban. Izotza lehian ebilen laino itxiagaz nork
gehiago zuritu bazterrak. Ez zan hotsik aditzen,
ezta giza arrastorik ere ikusten, gaztelutxoan
inor ez egoala zirudian.

—Eleizatik alde egiteko baino arduratsuago
ibili beharko neban lurretik hamar bat metro
jagiten zan murrua igoteko. Hau, eleiz-dorrea
lez, koskaduna zan, euskarri onak ebazan.
Tira, prestakuntzea baneban, aurreko saioak

bizkortuta gainera, eta Mikelen hurtasunik
adore emoten eustan. Izotzak, ostera...

Ekin aurretik azkenengo begiradea emon
neutsan aurrekoari: luzeran hogeit bat metro
eta zabaleran hamabi eukiko ebazan gazte-
luak, gitxi gorabehera. Dorretxe zabala zala
esan eitekean. Gero, motxilea ondo finkatu
bizkarrean, erretxin poltsatxoa garrian ipini,
eta hurreratu nintxakon hormeari. Urtengune
bati heldu, indar egin eta, lurraren segurtasuna
itzita, gorantz joan nintzan.

Beste egoera baten harri-kozkor hareeta-
tik gora egitea ez eitekean lan handia izango,
baina izotza zala medio, eskalada ez jatan
batere erreza gertatu, atzamarrak harriari eza-
rriarik euki ahal izateko behin eta barrero erre-
txinearen laguntza behar izan neban.

Dana dala, zurtasunean mamu iluna nin-
tzala, gainaldeari hurreratuz joan nintxakon.
Arimearen aztarnarik ez. Ez zan harritzekoa,
jakina, giroa ezin hotzagoa zalako babes eukita
kanpoan egoteko eta, zer esanik ez, gaztelu-
txoaren alderdi haretan. Ez neban kontua galdu,

baina, ez eskaladari egokionean ezta ustezko
zaindaritzari egokionean ere. Zorionez, bien
aldetik ezer aitatzetik izan barik, nekez bai,
baina uste baino errezago ere eskaladea buru-
tzen joan nintzan.

Eta burutu bitartean garaiko Euskal
Herria izan neban gogoetagai. Izan ere, labur
bazan ere, gure lurak garai haretan jasaten
ziharduan egoera latzari buruz berba egiten
eustan Diegok, Euskal Herriko Banderizo edo
Ahaide Nagusien arteko amaitu bako burrukei
buruz batez ere. Haren esanetan doilorkeria
aspaldi zan zabaldua gure eskualdeetan, eta
gose-sasoi hareetan herri xehea, nekazariak
hain justu ere, ziran kaltetuenak. Baina apurka-
-apurka, antza, herria batzen hasia zen jaun-
txoen kontra, hareengandik babesteko harresiz
inguratutako herriak sortuz. Gatazkearen zer-
gaitia, halan ere, ez egoan oso garbi, eta
Nafarroa eta Gaztelako erregeak haregaz zeri-
kusia baeban ere, lagunaren ustean Ahaide
Nagusien arteko norgehiagokea zan jokoan
egoana, zorioneko boterea besterik ez. Haxe

zala eta, behin baino gehiagotan hasarreak bando berekoen artean izatea ez zan harritzeko gauzea, ezta bandoz aldatzea ere.

Nork esan agindutako lanerako informazioa *in situ* jasoko nebala! Bezperan aspergarri iruditzen jatan gaia gertaera-kate haretan murgildua nintzanetik interesgarri bihurtzen hasi jatan. Lekutan egozan, baina, zelan edo halan esateko, bezperako Euskal Herria, nire herria, institutua eta ikasgaiaren laburpena ere. Lekutan!!

Pentsatze hutsak azala lazten eustan.

Eskaladako azkenengo metroetan sartuta gogoeta ilunak baztertu nebazan. Arretea handiagotu ere bai, jakina. Beste aldera pasatu aurretik, alde guztietara begira nengoan bitartean, arnasea hartu neban. Bihotza asaldatuta neukan, guztiz, eta ez bakarrik eskaladearen nekeagaitik.

IX ASPIRINEA

Kontu handiz pasatu nintzan beste aldera. Inor ez egoan agerian. Pasabideak laukizuzen formako eraikina inguratzen eban. Ertzetan patiora jaisteko eskailerak egozan, meheak oso. Trinkotasuna galtzen joian lainoan nahastuta harrizko hornei ezarritako aterpe batzuk eta bizilekuren gainaldeak ikusi nekezan, zotalez estalduta, ordura arte ikusitakoen antzekoak. Bertakoen egoitza eta biltegiak ziran. Patio erdian ur-putzua egoan.

Niregandik hurren egozan eskaileratetik behera abiatu nintzan patiorantz, bihotza airean, pauso bakoitza neurtuz. Bizkor ibili beha-

rra neukan, ostera, lainoa gero eta arinagoa zalako. Laster, seguruenik, estreinako argi-izpi ahulak zeharkatuko eben geruza zuria.

Halako baten, patiora heldu barria nintzala, oihuak entzun nebazan. Harri eta zur geratu nintzan, zentinelak ikusi ninduelakoan. Baina ez, iskanbilea ez zan gazteluko hormen barruan, kanpoaldean baino. Fardel batzuen artean ostondtu nintzan. Zer ete...?

Atetzarra edegitakoan jakin neban nor egoan nahasketan bete-betean sartuta. Diego zan. Lau soldaduren erdian agertu zan patioan. Lantzen mutur zorrotzak soinetik hur-hur ebazan. Sartu orduko beste dozena bat lagun inguratu jakezan, harritu itxurea ebela, ni lez hareek ere iskanbileak ezustean harrapatuta.

Ustebako gertaereak hankaz gora jarten eban nire plana, hau da, hotzaz eta goizeko aurreneko orduz baliatuta Mikel handik ataratea. Egia esan, zelan egin ez neukan batere garbi, aduaren eta bat-batekotasunaren eskuetan itzita baino. Eta garbi egoan urratzen hasi-

tako eguna itxura txarra hartzen joiala, goialdetik argi eta behealdetik ilun argitu behar ebalako. Eta guztiz ilun argitzea gura ez baneban, zeozer egin beharrean nengoan, eta lehenbailehen gainera. Barruti txiki haretan luzaroan ohartu barik pasatzea ia ezinezkoa zan. Zer egin neikean, ostera?

Seguruena, eta ia aukerabide bakarra, zelatari batek libre itzitako atea zeharkatzea iruditu jatan. Iskanbilak erakarrita aldegina zan ate ondotik. Eta hau zainduta baegoan, litekena zan Mikel han egotea. Beraz, patioko iskanbilaz baliaturik, jauzi baten, inor konturatzeko ate ostean nengoan.

Barruko ilunbeak itsututa geratu nintzan. Isiltasuna handia zan. Baina, sartu eta laster, aiene apal batzuk urratu eben. Begiak iluntasunera ohitzen hastean gizaseme bat begiztatu neban bazter bateko ohantzean.

—Zer arraio gertatzen da?! —orroa egin eban ohantzekoak, ni ikusita—. Arranopola!

Ez deusuet esan inor ez sartzeko? Nor dabil hor? Zer da iskanbila hori?

Zur eta lur geratu nintzan, ikareak hormeari ezarrita euki ninduan, zer egin ez nekiala. Mikel ez bazan, eta ez zan, nor zan gizon hasarretua?

Kanpotik heldu jatan erantzuna. Taldea ate ingurura hurreratu eta batek ahots ozenez esan eban:

—Alkaide jauna, alkaide jauna, preso bat egin dogu.

—Samea moztu eiozue. Eta bakean itzi! Buru madarikatu hau ziztadaz josita daukat, arraioa!

Zeozer egin behar neban, eta bizkor orduan ere, Diegoren samea soinetik bananduta ikusi nahi ez baneban. Harena eta... Pentsatu eta egin. Begi-bistan egoan kinka larriak nire buruari argitasuna emoten eutsala, hobeto!, bestelan... Izan ere, hormatik lantza bat hartu eta gizonarengana hurreratuz bihotzetik hurhur ipini neutsan.

—Nor arraio zara? —esan eban harrituta—. Zelatariak, niregana: hona! hona!! —oihu egin eban gero.

Bizpahiru lagun sartu ziran, ezpata eskuan. Nik esanak, ostera, geldituazo egin ebazan, zer egin ez ekiela itziz.

—Geldi hor, nagusia alderik alde zulo-tuta ikusi gura ez badozue —eta mehatxuari indarra emoteko estutu egin neban apur bat lantzearen mutur zorrotza gizonaren bularraren kontra—. Preso hartu dabena hona ekar-teko agindu, bizkor! —esan neutsan.

—Ez deusazue entzun? Mogidu bizkor!

Diego nire ondora ekarri eben. Gero soldaduak zain geratu ziran, erasotzeko une egokiaren zain, antza. Une larria zan. Beste bat, jakina, eta azkena ez. Luzatu ezinezkoa, bestalde. Zer egin...? Bakearen bidetik jardutea erabagi neban. Halan ere, ni berbetan hasi aurretik, Diegok berba egin eban.

—Harrigarria zara! —esan eustan—. Nasai nengoan. Banekian zeozer egingo zenuk, ez jatala ezer gertatuko.

Bera nasai egongo zan, ni, ez hainbeste. Gelako giroa gero eta astunagoa zan. Beraz, arintzeko asmoz edo, esan lez, bakearen alde tik jo neban.

—Ez gara zuekaz borrokatzera etorri, sinestu eizu, gure lagunaren bila baino —esan neutsan ohantzean zetzanari—. Oker ez banago zuen eskuetan dago. Askatu eizue eta alde egingo dogu.

—Bai, bai, ilunpetan ez zaitut ondo ikusten, baina beste horren antzekoa zara. Isiotu eizue zuzi bat, arranopola! —oihu egin eutsen soldaduei—. Zu ere lur barrutik helduta, ezta?

—Bai, eta hasarre nago —esan neutsan, azalpenetan sartzeko asmoak baztertuta—. Tira, hona ekarteko agindu.

—Ez dago gazteluan... Ene —eskua burura eroan eban min-keinua eginez—, buru madarikatu hau! Zelan sartu zara?

—Murrutik gora. Non dozue?

—Iruñeko bidean dagoaneko. Ai ene! Hau oinazea!

Igarria zan haren egonezina ez zala txantxetakoa. Une haretan, halan ere, ez jatan niri ardura, jakina.

—Hil badozue zureak egin dau —eta atzera lantzeari bultzadatxo bat emon neutsan.

—Ikutu ere ez dogu egin —esan eban larrituta—. Benetan! Badaezpada gortera bialdu dot, Iruñera, hango jakintsuen eskuetara. Madarikatuak, ostera, mendeku hartu dau joan aurretik. Hau mina, hau! Aluak gnomo bat itziko eban sartuta nire buruan. A ze ziztadak emoten deustazan!

—Ez dozu ezer, buruko min handia besterik ez. Batek daki zer jan edo zer edan dozun bart.

—Aztien artean ez zara zuhurrena izango —esan eban hasarre—, neuk ere badakit burukomina dala. Eta zelakoa! Baina ez bart janak edo edanak egina, inondik ere ez,

bai zera! —bizitzan izandako handiena zan, duda barik, halan berba egiteko.

Une haretantxe argitxo bat isiotu zan niregan. Haren bidez, onik urten bakarrik ez, gehiago ere bai lortu neikean, alkaidea alde jartea.

—Berbea emon nire laguna ondo dagoala eta lagunduko deuskuzula gurera ekarten, eta oinazeetatik libratuko zaitut, berak zure buruan egindakoa neuk deuseztatuko dot —esan neutsan adoretzu.

—Benetan? —bide zuzenean nenbilela emon eustan aditzera haren begitarteak—. Ondo dago zure lagun madarikatua, Karlos II.aren soldadu leial honen berbea dozu, infernuratua izan naitela guzurretan banabil. Tira, dinozuna egin eta zure lagunaren bila urtengo dogu. Esan deutsut, Nafarroarantz doaz, egunsenti aldera abiatu dira, orain gitxi.

—Ez doguz ikusi.

—Zeharkako bide batetik joan dira. Ibarra arriskutsua da zure laguna eroan dabeneztat, Lazkaoko Jauna atzetik jabilkie eta.

—Lapurrakaz bialdu dozu nire laguna?

—Nafarrakaz. Baina egin zeozer. Agudo!

—Egingo dot. Eragina, ostera, ez da berehalakoa izango, ordubete-edo itxaron beharko dozu igarteko.

—Ordu... zer? —hareek orduen loturea ez eben ezagutzen.

—Denpora apur bat, esan gura dot. Eta bien bitartean nire laguna gero eta urrunago egongo da, niregandik gero eta urrunago, ulertzen?

Pentsakor geratu zan, hausnarka edo, nik esandakoaren aldekoak eta kontrakoak neurtuz antza. Handik une batera oiuhu egin eutsen atean adi-adi egozan soldaduei.

—Roy —hareetako batek pauso bat egin eban aurrera—. Bialdu gizon bat taldearen atzetik. Bizkor badabil Bernoa gainera heldu aurretik harrapatuko dau. Tira, bizkor! Geratu daitezela Urdiainen nire aginduen zain. Eta zuk —niri esan eustan—, libratu eizu nire burua ziztadetatik eta atzetik abiatuko zara,

zeure lagunagaz eta nik jarritako gizon bategaz.

—Non dago Bernoa? —leku ha ez neban ezagutzen.

—Nafarroako Sakana eskualdera doan bidean, ibar madarikatu honen eta Urdiain herriaren artean, Nafarroako mugan.

Ontzat emon nebazan haren asmoak. Ez berehala, ostera.

—Zelan dakit sasoiz helduko dala zure mutila?


—Abere buru batzuk daroetz. Ez dira joango gura bestean bizkor. Bernoa aurretik harrapatzea ere ez da ezinezkoa.

Ontzat emon nebazan azalpenak. Denpora gehiago galdu barik eginbeharrari eutsi neutsan. Lehenengo begirale guztiak kanporatu nebazan eta jarraian katilukada esne beroa eskatu neban.

Zurezko katilua ekarri ebenean, motxilatik aspirina bi atara eta isurkari ketsuan nahastu nebazan.

—Edan eizu eta gero lo-kuluxka bat egin. Gerotxeago esango deustazu zelan zagozan.

—Azti madarikatua! Egia bada laguna nozu betiko —esan eustan, bihotzari berba egiten itziz.



Tragu batez hustu eban katilua.

—Berbea bete eta beste baterako ere emongo deustut.

—Ez, erakutsi zelan egiten diran.

—Neuk ere ez dakit, erosi egiten dodaz.

—Erosi? Non? Zein aztiri?

—Hemen ez. Tira, ahalegindu lokartzen.

X
BERNOAKO GAINEAN

Ordur eta erdi pasa eta gero bidean gongoz. Lo-kuluxka egin eta gero aspirinen eragina ezinbestekoa zan gazteluko nagusiarengan eta, poz-pezik, berbea bete bakarrik ez, behin eta berriro bere adiskidetasuna ere agindu euskun. Abiatu aurretik, gosaria ez ezik, ogi egin barria eta gaztaia emon euskun biderako.

Eskeinutako janariak hartu eta bideari ekin geuntsan. Alkaideak lagun bat jarri eban gure agindupean, gidari lez. Abiatuaz batera guregan murgildu ginan Diego eta biok, nor bere gogoetei emonda, ezinegona nagusi guregan.

Gaztelutik urten eta Aralar mendizerrantz bideratu ginan zuhaitz eta harri artean joian bide-zidor batetik. Bernoa eritxan mendatera joateko biderik luzeena zan, antza, baina seguruenan ibarrean hasarre ebilzanakaz aurkitu barik heltzeko. Bezperakoa baino argitsuagoa urratu eban eguna, baita epelagoa ere, hotza izan arren. Hurritz, elorri eta alderdi malkartsuetan ugari diran zuhaitz artean ibili eta gero, Intzartzu deritzan mendi magaletik Intxusti iturrira doan bide zabalera urten genduan. Bide ha ezagutzen neban, behin baino gehiagotan ibili nintzalako handik mendiko bizikletan, Ataundik gora igota. Alderdia, ostera, guztiz aldatuta egoan, eta gaur egun ez lez pagoak eta haritzak han eta hemen egozan. Iturrira heldu aurretik nik ezagutzen ez neban bide batetik desbideratu ginan. Bidea basotik zehar joian, eta ez eban ha izten Agautz mendia gailurrera heldu arte, isilean bidaia-tzeko babes parebakoa emonez. Handik Urkillaga mendatera joan ginan. Bertan geldialdi bat egin genduan behera egin baino lehen.

—Hemendik aurrera kontuz ibili behar dogu, ibaia Ergoena ingurutik zeharkatu behar dogu-eta —esan euskun nafarrak—. Oraindino kontu handiagoz Lazkaoko Jauna inguruan ibilita. Gizon bizkorra eta arriskutsua da.

—Zelan laguntzen deutsezue lapurrei? —jakinminak ahoratu eustan itauna.

—Bernotatik harantz ere sarri ibiltzen dira alde honetakoak. Bizi garan sasoiak halakoxeak dira. Beraz... —erantzun eustan zabarkiro, lapurretan ibiltea guztiz arrunta balitz lez.

Ez neban gaian sakondu gura izan, une haretan ez behintzat. Dana dala, oker ez banengoan, baserritar gosetiak ziran lehia haretan galtzaile bakarrak.

Kontu handiz ibiliz baina ezelako eragozpen barik zeharkatu genduan Agauntza ibaia eta mendian gora hasi sasoi haretan Nafarroara joateko bide garrantzitsua zanetik. Inguru haretan ei ebilen Lazkaoko jauna.

—Aldapa gogorra dogu, baina horri esker harrapatuko doguz —esan euskun gure

gidariak. Esan orduko, ostera, gogoetatsu gel-ditu zan une batez—. Dana dala, kezkatzen nau baretasun honek, kezkatzen nau... —gaineratu eban gero, bere buruagaz berba eginez lez.

—Asko falta da Bernoara heltzeko?
—itaundu neutsan.

—Denpora apur bat oraindino.

—Ea bada, jarraitu daigun aurrera, bizkor!

Bidea, besteak esan lez, gogorra zan. Izotzak lurra gogor eta labankor bihurtuta eban. Izerditan ginoiazan aldapan gora, arna-
sestuka baina gelditu barik, neguak soildutako pagadi zabaletik.

Bidea leuntzen hasia zalarik agertu zan gure aurretik abiatutako mutila, estu eta larri azaldu ere, bisaian ikara islatua ebalarik. Susmo ilun batek ulea laztu eustan.

—Alferrik izan da, ezin izan dot ezer egin —esan euskun urduri—, ni heltzerako Lazkaotarrak inguratuta eukiezan, baina ez Bernoan, Beiretako mendatean baino.

—Atzean geratu da bertara joateko bidea —argitu euskun gugaz joianak, nire begietan agertutakoari erantzunez—, ez da oso bide erabilia, baina Nafarroara doa hori ere.

—Zuen laguna eta talde burua bakarrik geratu dira tente, besteak hil eta bertan itzi dabez, jentilak balira lez piztia gosetientzako opari. Bapo jarriko dira.

—Mikel bizirik, beraz... —esan neban, pozik, zelako kinka larrian egoan kontuan hartu barik.

—Ez luzaroan —besteak, zapuzketeari atea edegiz—. Oker ez banago, gaur bertan, gauean, ospakizun galanta egingo dabe.

—Gaur gauean?...

—Bai, sokatik zintzilik jarri aurretik. Ea, hanka egin daigun, laster agertuko dira eta.

—Hanka egin ez! —esan neban adoretzu.

—Ezin deutsegu aurre egin. Zer gura dozu, gu ere hemen gorpu geratzea? Eta, gainera, guk geurea bete dogu. Aurre egiteko moduko talde bat bagina, ez pentsatu bizkarra

emongo geunskienik, ez horixe, baina gagozanok egitea astakeria izango litzateke, astakeria galanta. Tira, ahalmen bereziak badozuz, ez dozu gure laguntzarik behar.

—Zoaze, ba. Nigaz geratzen zara? —Diegori itaundu neutsan.

—Jakina. Ez ahaztu, lagundu egin behar deustazu —ez eban niganako konfiantzea galtzen koitaduak, benetan! Ez ekian ondo...

—Zuen ustez, nora eroango dabez? —joan aurretik azkenengo itauna egin neutsen.

—Ergoenara, zalantza barik. Ergoena-koak izan dira kaltetuak, beraz, eurei dagokie mendekua hartzea. Aldi berean, ohi zan lez, Lazkaoko Jaunari ospakizunATEGAZ esker ona emongo deutsie.

—Ez dabe adurea alde izan gizajoak —esan eban aurretik ibiliak—. Antza danez, mugarantz joiazala, Lazkaoko jaunaren taldea atzetik etorkiela ohartuta, Beiretarantz bideratu dira gureak, jazarleei ziria sartzeko asmoz.

Oker urten deutse guztiz. Abereak ez izteagaitik, itxuraz. Ergel halakoak!

—Ergoenara eroango dabez orduan.

—Hemen gagozan bestean seguru nago. Zuhur ibili zaiteze, orduan, zuek ere zintzilik amaitu gura ez badozue. Zuek ikusi zer egin, laster baten hemen izango dozuez arerioak, honantz datoz eta. Gu bagoaz, berandu izan baino lehen hanka egin behar dogu hemendik, Athaunen gure lepoa ez da-eta arriskuan egongo —esan eta, eskuaz agurtu eta gero, ziztu bizian joan ziran ibarrerantz.

—Diego, aduak alkartu egin gaitu eta, oker ez banago, gure lagunak Ergoengan alkartuko dauz —esan neutsan, neskea ere han joten nebalako—. Ez dogu itxaropena galdu behar. Zoria alde badogu, eta itxaron daigun honan izatea, bide batez mandatu bi egingo doguz.

—Irrikitzen nago, ez dot bildurrik, zure ondoan ez dot batere bildurrik.

Ikaragarria zan haren konfiantzea. Nirea ez, jakina, etorkizuna laino baltzez beteta nekusan eta.

XI ERGOENA

Bakarrik geratu ginan Diego eta biok. Lagunak adi begiratzen eustan, zer erabagiten neban itxaroten, nire ahalmen berezietan uste osoa jarrita. Nik, tamalez, geroa ez neban berak bestean argi ikusten, oso iluna baino. Gai izango ginan gure laguna basati hareen atzarretatik libratzeko. Zelan jokatu beharko genduan...?

Menditik behera etorren talde baten oihera eta hotsak eten eustiezan gogoeta ilunak. Lazkaoko jaunaren taldea zan, jakina, eta une batetik bestera gureganaino helduko zan.

Partaideak, antza, garaipena ospatzen zihardu-
duen ordurako.

Alkarri begira egon ginan une batez, zer
egin alkarri itaunka-edo, denporea alferrik gal-
duz. Une batez bakarrik, garbi egoalako zer
egin behar genduan: lehenbailehen ostondu!
Beraz, zalantza-unea gaindituta, gure ingu-
ruari begirada bizkorra emon, eta hur egozan
gorosti batzuen artean ostondu ginan. Hosto-
tzan ostonduta, lur hotzari ezarrita arnaseari
utsiz, zelatan jarri ginan.

Hogeita hamarren bat lagunek osotutako
taldea zan. Zaldizkoak, dozena bat inguru, beste-
engandik nabarmentzen ziran, bai janzkeran
bai tankeran ere; batez ere talde-burua zirur-
diana, Lazkaoko jauna, ziurrenik. Beronen ingu-
ruan joiazan zaldi gaineakoak; atzetik, barriz,
oinezkoak, laguntzera joandako nekazariak.
Zaldunak kasket bategaz babesten eben burua,
soina eta hankak narru eta burdinazko pieza-
kaz, eta bota-edo moduko narruzko oinetako
luzeak eroiezan. Gerrarako jantzita joiazan,
ondo hornituta, ezpata, lantza eta sastakaiakaz.

Oinezkoen artean joiazan preso biak.
Lapurren burua, jipoi ederra jasota, zabuka
joian; Mikel, ostera, azalekoari jaramonik egi-
ten baneutsan behintzat, ikutu barik. Kinka
larrian ikusita ere, pozgarri suertatu jatan,
itzel poztu ninduan barrero ikusteak, goibel
baina osorik, banandu ginanean lez.

Korapilo bat egin jatan eztarrian.



Dana dala, Lazkaoko jaunaren taldekoen poza nirea baino handiagoa zan, askoz ere handiagoa. Gure aurretik pasatu ziran, ardurea guztiz galduta, oinezkoak algara bizian, mendekua ospatzen jadanik. Guztien gogoan, duda barik, sokea erabili aurreko jan-edanaldia egoan.

Mikel ere eskegiko ete eben? Bildur batek buruko uleak laztu eustazan. Gauza ziran hori egiteko, zalantza barik, garai haretan sokea eta sua erabiltea arrunta zalako, oso oker ez banengoan. Baina, ni ere, zelan ez jakin arren, gauza izango nintzan astakeria galazoteko. Bai horixe! Zorte handia beharko neban, jakina, zorte itzela; eta ausardia, jakina, eta ez edozelakoa. Erronka handia zan, bada, Diego eta biona. Honentzat beharbada ez hain handia; niretzat, barriz, sekulakoa, gisa haretako liskarretan, hil edo biziko burruketan, ez neukalako eskarmenturik. Pentsatze hutsak ia dardarka jarten ninduan.

—Ardaua eta sagardoa ugari ibiliko da eskuz esku —esan eustan Diegok taldea urrundu eta gero—, odola berotu eta zuhurta-

suna geldotu egingo jake, ikusiko dozu. Horrek emongo deusku zeozer egiteko aukerea, inork ez daualako urkamendua galtzerik gurako, ziur izan. Zuk zeozer asmatuko dozu.

—Mikel ere... —bildurra emon eustan gogoeta baltza agertzeak.

—Ez dot uste, bestelan dagoaneko, lapurra lez, jipoituko eben. Zuen jatorria-edo kontuan izanik, sutarako gordetea izango da Lazkaoko Jaunaren asmoa, bere jarraitzaileei jostaldi bat eskeintzeko bizirik gorde.

—Ederra, arraioa! Sokea ez bada sua. Garai zoro honetan ez dago beste dibertimendurik? —esan neban ikaratuta.

—Baina ez dago kezkatzeko ziorik.

—Ez dagoala...? —harrituta begiratu neutsan.

—Ez, ahaltzuak zarie.

Betiko leloa! Berak bakarrik sinesten eban leloa, jakina, zeren nik... Baina, zelan edo halan, egia bihurtu behar neban haren uste sendoa.

Zuhurtasunak agindutako tartea gordez joan ginan taldearen atzetik ibarrerantz. Ergoena auzo aldean sagasti eta gaztainadiak ordezkutzen ebezan pagadiak; auzo inguruan intxaurrondo batzuk ere ikusi eitekezan. Lagunak esan eustanez, negu gorriari aurre egiteko ezinbestekoak ziran arbola hareen fruitu iraunkorrek, garrantzi handikoak ei ziran garaiko elikaduran.

Gaztainadi batetik taldea Ergoenara helitzen ikusi genduan. Sekulako ondoetorria emon eutsien baserri inguruetan alkartutakoak menditik etozanei. Eguerdi hotzaren nasaitasuna guztiz nahastua gertatu zan.

Orduantxe, gogora etorrita, motxilatik prismatikoak atara nebazan. Harridurea begiradan, zelan ez, begiratu ebazan Diegok. Gehiago begietan ipini nebazanean. Behaketak Mikel baserri baten atzealdeko txabolan zelan sartzen eben ikusteko aukerea emon eustan. Gizon lantzadun bat geratu zan ate ondoan.

Diegori luzatu neutsazan gero. Errezeloz hartu, aurpegiratu, guztiz ikaratu eta barriz ere

niri emon, ia batera gertatu zan. Guztiz harrituta geratu jatan begira, baita bildurtuta ere, itxuraz.

—Zaku bitxi horretan eskua sartzen dozun bakoitzean gauza harrigarri bat ataraten dozu. Itzela! Zurea dalako, bestelan... —aho zabalik egoan— infernuko tresnea zala esango neukean. Ene! Begi-kliskada baten baserri-raino heltzea... Arraioa! Zin egiten dot Aralarko Aingeruaren santutegira joan behar dodala opari bat egitera. Inesegaz joango naz, bai horixe, mendia loratu orduko joango gara, zin egiten dot.

Gogo gitxi izan arren, barre egin neban, ikustekoa zalako Diegoren begitartea. Gero prismatikoei buruz azalpen batzuk emon neutsazan, azalekoak, sakontasunetan sartu barik. Ez dot uste larregi ulertu ebanik. Barriro ere luzatu neutsazanean, barriz, nasaiago eta luzeago egon zan begira.


—Ikusten? Zu hemen zagoz, ez zara mo-gitzen, begiradea bakarrik hurreratzen jatzu, ez begiak. Ez dago ezelako sorginkeriarik.

—Batzuetan bildur emoten deustazu. Baita zure munduak ere.

—Azkenengo horrek niri ere bai, ez pentsatu. Dana dala, XX. mendea munduko historian menderik doilorrena zala uste baneban ere, honezkero ez nago hain seguru. Garai guztietan ere... Tira, mogidu gaitazan! —historia aztertzea baino zeregin premiatsuagoak genduzan egun hotz haretan.

Babesa bilatzeari ekin geuntsan. Ilundu arte ez egoan ezer egiterik eta, bestalde, atsedean hartzea ere ez jakun txarto etorriko. Beharra genduan, behar handia izan ere, egun biziaren eragina jasaten hasita gengozalako ordurako; eta, gainera, gauak zer ekarri behar euskun ikusteko egoan. Jakina, zelatatzen itzi barik hartuko genduan atsedean, zereginean tartekatuz.

Bilaketea hasi aurretik prismatikoak hartu eta beste begirada bat emon neutsan ibarrari. Lapurra kanpoan lotuta ikusi neban. Mikel egoan txabolan, ate ondoan, gizon lantzadunak segitzen eban.



XII MIKEL

Zerua, urdintasuna galduta, ubel egoan. Ekintzara pasatzeko une larria hur genduan. Ergoenakoak jateari eta edateari emonak ziran ordurako. Algarearen oihartzunak geuganaino heltzen ziran, argi-argiak gainera. Pozik egozan baserritarrak, alai eta nasai, izan ere euren ondasun urriak salbu egozan lapurrak akabatu eta gero. Diegoren ustean, ostera, ez luzaroan, goseak lagun asko bideratzen ebalako bide okerretik.

—Nagusien jarraitzaileak ere, edozein aitzakia dala medio, esku luzeak daukiez sarriegi. Eta hareek, jakina, ezikusia egiten

dabe. Mesedeak ordaintzeko era merkea da, itxuraz —gaineratu eban lagunak.

Iluntzen hasi aurretik, arratsaldean, nik lo-kuluxka bat egiten niharduan bitartean, Diegok bila ebilen neskea ikusi uste izan eban. Mikel egoan etxe berean ikusi uste ere. Halan bazan, ez zan barri txarra, ekintza berean askatu geinkezalako gure lagun biak. Halan ere, ez zan ausartu prismatikoakaz begiratzen, azalpen eta guzti ez zan tresna hareetaz fidatzen.

Ni bai, adi eta luze egon nintzan begira, eta irudi zehatza egin neban alderdiaz. Bertaratzeko, txabolan eta baserrian sartzeko eta alde egiteko bideak gogoan geratu jatazan argi oso. Era berean, Diegoren ustea uste sendoa zirudiala ondorioztatu neban. Ha guztia azaldu neutsan. Ez eban eragozpenik jarri, alderantziz, itxaropentsu agertu zan, ordura arte lez nire ahalmenetan uste osoa jarrita eukalako. Egia esan, gaitza izanagaitik, ez neban uste alde aurretik uste moduko gaitza izango zanik lagunak askatzea, batez ere behekoen konfiantzea eta ospakizunean parte hartzeko gogo bizia

kontuan izanik. Mikelen zaindaria, esaterako, ate ondotik hamaika joan-etorri egiten ikusi neban. Halan eta guztiz ere, ez zan nire asmoa atetik sartzea.

Guztiz ilundu aurretik abiatu ginan. Nahiko nasai ninoian, guzurra badirudi ere. Harrituta ninduan nasaitasunak, eta ez une hareetakoak bakarrik, baita egun zoro bi hareetan zehar izandakoak ere. Lagunak nire gainean ipinten ebazan dohain harrigarrietan sinesten hasi ete nintzan? Batek daki! Kontua da, astiro-astiro, pauso bakoitza neurtuz, hurreratuz joan gintxakozala baserriari. Heldu aurretik, oster, hur ordurako, zelatan geratu ginan guztiz ilundu arte. Algarea guk uste baino handiagoa zan, eta handiagotuz joango zan, jakina, sagardoaren eta ardauaren eraginez.

Ateko zaindaria, goitik ikusi genduan lez, gu baino urduriago ebilen, ospakizunean parte hartzeko gogoz baina ezinik.

Dana dala, esan lez, ez zan gure asmoa zentinelea egoanetik Mikelengana heltzea, ez

horixe, aurkako alderditik baino, hau da, zohizko gainaldetik. Hara igon eta zulo baten bitartez, eskalada-sokak lagunduta, sartuko nintzan barrura. Sartzeko era errezena izateaz gainera, Mikel askatu eta gero Inesen bila jarraitzeko aukera parebakoa emongo euskun gainaldeak, gure ustearen arabera hur egoalako Ines ostonduta eukien gelea, baserriaren bigarren solairuan.

Iluntasunean babestuta heldu ginan igoteko aukeratutako lekura. Iskanbilak mesede handia egin eustan asmoa burutzeko. Batere kosta barik teilatura heldu nintzan horma trauskiletik gora. Sokeak lagunduta igon neban Diego. Gero, zohien gainean etzunda egon ginan luzaro, arnaseari eutsiz, zuhur, ingurua aztertzen genduan bitartean.

Ospakizunari osorik emonda egozan Ergoenan batutakoak. Beraz, ekin geinkion alde zurratik erabagitarako. Zohiak ez euskuen eragozpenik jarri. Baina bat kendu eta, zuloa zabaltzen jarraitu aurretik, barrualdea aztertu nahi izan neban, badaezpada ere. Ez

neban ezer ikusi, ezin zan, han ez egoan argirik, iluntasuna kanpokoa baino handiagoa zan. Bihotza saltoka zuloa handitzen segitu genduan.

Amaitu genduan, sartu aurretik, adi geratu nintzan. Unea larria zan, urduri nengon, borda barruko isiltasunak urdurituta. Zelan egongo zan Mikel? Ia hotsik atara ez bagenduan ere, harrezkero zuloa ikusiko eban... Baina ikusi baeban ere, ez eban txintik ere esan, mogidu ere ez zan egin. Kinka estua, benetan!

Sartzeko prest nengon. Baztertu neban sartu aurretik linternea erabilteko gogo. Ilunpetan sartuko nintzan, ahal bait isilen, badaezpada ere. Ez neban uste Mikelegaz inor egongo zanik, bestelan barrua ez zan ilunpetan egongo, jakina. Halan eta guztiz ere...

Sokea ondo finkatu neban, zulora hurre-ratu eta barrurantz lerratu nintzan, saguzar bat banintz lez. Lurra ikututa isil-isilik geratu nintzan. Bazter baten hots apal bat entzun neban. Adi-adi jarraitu neban.

—Nor da hor? —hurrengoan Mikelen ahotsa entzun neban, motel-motela.

—Ixo! Aitor nok —esan neutsan ahapeka, guztiz hunkituta—. Bakarrik hago?

—Bai —xuxurlatu eban.

Bozaren sorbururantz joan nintzan. Gero, linternea isiotu neban, ahalik eta argi txikiena zabaltzen ahaleginduz. Hantxe egoan nire lagun mina, lurrean etzunda, besoak eta hankak lotuta. Berbarik esan barik, bihotza samur-samur, lokarriak ebagi neutsazan. Besar-kada sendo bategaz bat egin genduan. Negar malkoak begiak lausotu eustiezan; zirrara berezi batek bihotza estutu eustan.

—Ondo hago? —itaundu neutsan.

—Orain bikain.

—Pozten nok, itzel pozten nok! Gero berba egingo joagu, orain goiazak hemendik, goiazak lehenbailehen —esan neutsan.

—Bai horixe! Baina motxilea hartu behar joat, bazterrean jagok eta —esan eustan gorantz egin aurretik.

XIII INES

Soberan egozan berbak gure barruko sentimenduak agertzeko. Bihotzak berba egin eben gure partez. Denpora gitxi, baina. Jarraian, denpora gitxian ere, berba bitan, adierazo neutsan Mikeli banandu eta gero gertatutako guztia, lagun barriarena eta haren lagunarena barru. Baina ez geunkan luzamendutan ibilteko astirik, neskea askatu eta ihesari emon behar geuntsan. Eta gainera, gureganaino heltzen zan algarearen arabera, haxe zan une egokia. Beraz, ez genduan alferrik galdu behar.

Lapur gizajoa gogoetagai izan neban une haretan. Haren zorigaitza, haren heriotz

gogorra, gure salbazioa izango zan antza, une garratzaren hurtasunak itsutuak ebazalako gure arerioak. Bizitzearen paradoxak! Nahita ere, egia esan, ezin genduan ezer egin haren alde, geure samea soka bategaz inguratuta ikusi gura ez bagenduan, jakina.

Zohizko gainaldera igo genduan. Diego itxaroten genduan, urduri samar. Berehalan, igoaldi errez bat eginda, ganbara moduko gelan sartu ginan. Teilatu ondoan egoan, eta baxua zan oso, hain baxua eta makurtuta ibili behar izan genduan. Baserriaren epeltasuna laztan bat lez izan zan guretzat. Ondo samar hornituta egoan, bestalde, negualdiari aurre egiteko. Linternearen argiak gaztaina eta intxaur ugari jarri euskuzan begi-bistan. Aurrera jarraitu aurretik sakelak bete genduzan.

Ganbarea zeharkatu genduan beheko solairura eroango ginduzan aterantz. Kontu handiz zabaldu arren, ate zaharrak egin eban kirrinkeak bihotza airean jarri euskun. Arnaseari eutsiz geratu ginan hirurok. Egoera haretan iragandako unea, laburra izanik ere, amaitue-

zina iruditu jatan. Zorionez, sekula koipeztatu bako atearen zaratotsa ez zan inoren belarrietaraino heldu, baserri barruko lasaitasun astunak bere haretan jarraitu ebalako. Laster, haztamuka ibiliz zuzi batek ozta-ozta argizatzen eban korridore zabal batera heldu ginan, aurreko solairura hain zuzen, ustez neskea egoan solairura.

Bertan jasan genduan hurrengo ikarea, aurrekoa baino gogorragoa, gainera. Bat-batean ate bat edegi zan. Hormeari ezarrita, bihotza zoroki bularrean, adi geratu ginan, erdilunetan babestuta.

Andra zahar bat zan. Urten, atea kanpotik trangatu, eta guri bizkarra emonez beherantz joan zan, korridorearen beste muturrean egozan eskaileretatik. Alkarri begiratu eta sakon hartu genduan arnasea hirurok. A ze nasaitua hartu genduan!


—Orain nire txandea da —esan euskun Diegok, begiradea emakumeak urten eban gelarantz zuzenduz.

Ezpata motza narruzko zorrotik atara eta, mamu bat balitz lez, barruko bidetik abiatu zan. Begira geratu gintxakozan Mikel eta biok, urduri oso, segundoak luze baino luzeagoak iruditzen jakuzala. Kontu handiz kendu eban trangea, hotsik atara barik zoruan itzi, eta barruratu zan gelan. Sartu orduko zaratatxo bat heldu zan gure belarrietaraino. Gero isiltasuna egin zan barriri, gero eta astunagoa zan isiltasuna.

Lagunaren zain gengozala (laburra izan arren gelan eroian tartea ikaragarri luzea egi-ten jakun), oinotsak entzun genduzan. Baten bat gorantz etorren. Barriri hormeari ezarrita, zeharka begira, gizona ikusi genduan. Kopa bat ekarren eskuan. Zabuka pauso bi aurrera emon, trago luzea jo, korroskada ozena bota, eta Diego sartutako gelan sartu zan bera ere.

Ate ostean desagertu zanean alkarri begira egon ginan, kezkatuta, zer egin ez genkiala. Une batez bakarrik, berehala gelarantz joan ginalako. Baina abiatzeko unean hots gor bi

entzun genduzan, eta ate ondora heldu ginanean sartu barria lurrean ikusi. Diego eta neskea ondoan egozan, begiak zabal-zabalik konortea galdua ebanari begira. Mutilak ezpata jaso eban.



—Geldi, odolik ez! —esan neutsan ahots apalez baina sendo—. Horren odolak odol gehi-ago ekarriko dau, zuk badakizu, guk baino hobeto jakin ere. Beraz, aurre egiozu gorrotoari.

Ez jakon erreza izan aukerea egitea. Tartetxo bat duda-mudatan egon eta gero, baina, amore emon eban, kostata bada ere, eta ez guztiz konbentzituta gainera.

—Hau da Larrazako mutil dongea, Judasen odola ekarri dauan mutil dongea, bere etxearen izen ona zikintzen dauana —esan eban zoluan zetzanari begira.

—Horixe uste neban. Baina ez zikindu zeurea bere odolagaz. Nahikoa isuri da gaur. Ea bada, bizkor ibili gaitezan, bestelan gureak ere ez dau asko iraungo zainetan eta.

—Goazen, lehenbailehen! —esan eban Mikelek, urduri.

—Bai —Diegok bere onera etorrita haren berbak baietsi—, anker horrek lo egingo dau denpora zati baten. Alferrik da esatea, baina hau da Ines.

—Pozten gara, biziro —agurtu neban begirada iheskorra jaurtiz, baina nahiko haren edertasuna ikusteko—. Tira, orain hanka egin behar dogu; kinka larri honetatik onik urteten badogu, izango dogu astia nasai berba egiteko, baita ospatzeko ere.

XIV ASKATASUNERANTZ

Zortea eta ospakizun makabroa gure alde (Ergoenan batutako guztiak lapurraren inguruan egozala emoten eban), danak uste baino errezero urten euskun, azkenengo momentuko ezuste eta guzti. Baina, ihesaldiari gura baino geldoago emon geuntsan, nire usterako. Sartzeko bide berbera erabili genduan alde egiteko ere. Ganbaratik txabolearen teilatura eta handik lurrera jaitsi ginan, kontu handiz, eta kontu handiz hasi ginan baita auzotik urrun-tzen ere. Baina, esan lez, geldiegi ginoiazela iruditzen jatan. Beharbada bihotza hankak baino askoz ere arinago ebilkidalako izango

zan. Beharbada bai. Gure egoerea, dana dala, ez zan segundo bat ere galtzeko modukoa, gelan geratutakoaren faltaz ohartu aurretik, edo haren itzarrerea gertatu aurretik, ahalik eta urrunen egon behar genduan onik urteteko, ibaia zeharkatuta mendian gora gitxienez.

Ez genduan itsumustuan alde egin behar, bestalde. Arratsaldean, prismatikoak lagunduta, hamaika aldiz aztertu nebazan inguruak; ilunduta, barriz, ez jakun nik uste moduan bizkorra gertatu ibaia zeharkatzeko zubira ailegatzeara. Bide eta lursoloetan zehar joan ginan, sarri estropezu eginez eta batzuetan lurrera jausiz ere bai. Linterna bana genduan Mikelek eta biok, baina zuba zeharkatu eta mendiz gora egin arte arriskutsuegia zan erabiltea. Beraz, eta unea heldu bitartean, ozta-ozta igarri geinkean ibaiaren lerro makurrari jarraitu behar geuntsala, haren ur lasterrak gure alboan itzi arte.

Goizean lez, bide erabilienak eta erabilez ezak baztertuz, luzeena aukeratu genduan gaztelura joateko, gure ustean zaldiz urtego

ebelako gure atzetik. Nolanahi ere, gau gogorra pasa beharko genduan, hotza handia zalako.

Arnasestuka zeharkatu genduan zurezko zuba. Bide zabalak ezkerrean egiten eban, Ergoenarantz; guk aukeratutakoak, barriz, Urkillaga gainerantz. Bide-zidor bat zan. Egunargiz ez zan batere eroso zaldiz egiteko; gauez, ia ezinezkoa. Beraz, hori kontuan hartuta, ha zan biderik egokiena.

Atsedenditxo bat egitea ebatzi genduan aldapan gora hasi aurretik. Berehala, baina, bertan behera itzi behar izan genduan.

Izan ere, zentzumenak adi geunkazan, gero eta ahulago heltzen jakun algaran ipinita, honek Ergoengan gertatzen ziharduanaren barri emongo euskulakoan. Eta halantxe izan zan. Guk uste baino lehenago, edo, beharbada, gura baino lehenago, moteldu zan. Une batez ez zan hotsik heldu gure belarrietara. Handik apur batera, oster, barriz ere sortu zan, ozenagoa eta guztiz bestelakoa sortu ere. Gau

hotzaren isiltasuna urratu eban. Ihesaren barria zabaldua zan.

Berbarik esan barik, nekeari aurre egin, eta bide-zidorretik abiatu ginan aldapan gora: nekearen nekez, bildurrak hankei hegoak ipinita eta pausoak itsumustuka emonez. Laster, mendi itxian, linternez baliatu ginan hobeto ibilteko. Argia sortzeko ahalmenak ihesaldia erreztuko euskun, jakina, baina ez nekian nahikoa izango zan, gaua luzea zan, luzea eta ikaragarri hotza; beraz, bildur nintzan.

Argia ikusi orduko gelditu egin zan neskea, bisaian harridurea eta ikarea agerian, gure magia ikusita. Diegok nasaitu eban, Mikel eta biok Aralarko Aingeruaren lagunartean sartuz.

Egia ahal balitz!

Barriri abiatu ginan. Bidea estua zan, lurra gogortua eban izotzak, harriak laban bihurtuak. Ibilaldia nekosoia zan oso. Soilunetan ilargiaren argitasun zurbilak zeozertxo laguntzen euskun, baina tarte hareek ez ziran

luzeak. Behar ere ez, jakina, guk Urkillaga mendatetik gora egin arte behintzat.

Mendatean atsedenaldi bat egin genduan. Ezinbestez egin behar izan genduan, nekatuta gengo zalako, denpora guztian aldapan gora ibili eta gero. Neskeak, gainera, oinak minberatuta ebazan. Ez zan harritzekoa haren oinetakoak ikusita; baina txalogarria zan, benetan, ordura arte ibili zan lez ibiltea.

Tarte haretaz baliatu nintzan prismatikoez gauean arakutzen ibilteko. Alferrik, jakina, izara baltzak eragotzi eustan bere gauzetan sudurra sartzea. Iluntasuna danetik egoan zabaldua. Pozgarri zan, jakina, arerioak inguruan ez ebilzan seinalea zalako.

Hankabikoak ez ziran, halan ere, gero gure sorterria izango zan eskualdean genduzan arerio bakarrak. Halako baten, ilunpeetatik sortuta, lau hankako bat izan genduan aurrez aurre. Burua zabala eban, muturra estua baina sendoa, eta oraindino sendoagoak agerian ebazan betaginak. Otso bat zan! Guri begira geratu

zan, marmar egiten, mehatxagarri. Une baten ostean, burua zerurantz bideratuta, ulu egin eban.

Hotzikara batek odola gaueko tenperatu-rearen pare jarri eustan. Animaliari begira, ikaratuta laurok, lipar luze baten ez genduan berbarik egin, ezta mogidu ere, Diegok ahapeka berba egin eban arte.

—Taldea ez da urrun egongo —esan euskun—. Neguan otsoak taldeka ibiltzen dira. Zer egin daikegu?

Haren itaunak ez eban erantzunik jaso. Ez ginan berba egiteko gauza, ezta ezer egiteko ere, ikaratuta piztiari begiratzeko bakarrik. Honek beste ulu bat bialdu eutsan ilargiari, aurrekoa baino luzeagoa. Begiak ñirñirka ebazan eta letaginak, esan lez, agerian; nik, barriz, hankak makal, dardara bizian.

Grrrrrr...! Haren marmarioak ez eban asmo onik aldarrikatzen.

Zorionez, Mikel gauza izan zan egoera larriari aurre egiteko. Bere burutapenak atara

ginduzan estualditik eta otsoa ihesian jarri. Bat-batean linternea isiotu (zuhurtasunak aginduta Urkillaga gainera heldu baino zeozertxo lehenago amatatu genduzan) eta argia piztiarenganantz bideratu eban. Berehalaxe gauza bera egin neban nik ere.

Argiaren erasoak ezustean harrapatu eban, antza, atzera egin ebalako pitin bat. Eta marmarioa areagotu bajakon ere, eta letaginak behin eta barrero erakutsi baeuskuzan ere, astiro-astiro joan zan atzeraka. Estu eta larri artean, jarraitu genduan era haretan otsoa oldartzen, eten barik garaipena geureganatu genduan arte. Argiak itsutuazo edo, halako baten ulu dardarti bat jaurti, eta etorri lez ilunpetan galdu zan piztia gosetia.

—Hirea burutazinoa! —esan neutsan lasaituta—. Zelan...?

—Neuk baneki! —Mikelek erantzun.

—Otsoen artean ere nagusi —Diegok.

—Aralarko Aingeruak babesten zaitue, ezbairik ez —neskeak.

Pasadizoa indargarri suertatu jakun, zelan edo halan esateko, bizkor jarri ginalako bidean. Halan ere, ez ordura arte bestean bizkor, nekearen eragina gero eta begi-bistakoa-goa zalako gugan.

Abiatzeko unean, alabaina, ohitureari-edo jarraituz, eskumuturra luzatu neban ordua ikus-teko asmoz. Erlojuaren pantailatxoa aurreko moduan egoan. Mikeli itaundu neutsan.

—Ez jabik, zulokoaz ostetik ez jabik. Eta pila faltan ez jagok —erantzun eustan.

—Nirea lez; eta une beretik. Harrigarria, ezta?

—Zer ez ordudanik!

Agautz menditik hur txabola bat aurkitu genduan. Ordurako neka-neka eginda gengo-zan. Gaua artean hasi barria zan, zelan edo halan esateko, eta kontuan hartuta handik aurrera bidea pikoa zala, bertan atsedean hartzea erabagi genduan. Eguna urratu baino lehen abiatuko ginan, halan ere.

Sua isiotu genduan txabolan aurkitu-tako zotz eta egur zatiakaz. Metxeroak, jakina, harridura handia eragin eban Inesengan! Dana dala, gizaki apartak ginalakoan, aukera haretan ez zan ikaratu. Gero, ganbaratik hartutako gaz-taina eta intxaurrak jan eta gero, bat zainke-teaz arduratzen zan bitartean, barrugiro epela-ren magalean lokartu ginan.

Eguna argitu aurretik bidean gengo-zan barriro. Kostata, nagiak nekez ateraz, barrugiro gozotik urten genduan. Izarrak distirea galduta eben ordurako, zerua ez zan hain iluna, eta ekialdean argitasun apala asmatu eitekean.

—Orain aldapan behera ibiliko gara denpora zati baten —esan neutsen abiatu gina-nean—, eta, eguna urratutakoan, Athaunetik hur egongo gara. Alkaideak lagunduko deusku, seguru egongo gara gazteluan, arerioengandik babestuta behinik behin... Zeren gurea kon-pontzeko... —ezkor amaitu neban.

—Gure etxeko atea zabalik dozuez —esan eban neskeak eskerrona azalduz.

—Horrek ez dau gure egoerea argituko. Mila esker, halan ere. Tira, ez daigun geroa aurreratu eta goazen oraina segurtatzera —geroa geroko iztea erabagi neban, oraina artean ez zan guztiz argia eta.

XV BURRUKEA

Eguna argitu ebanean hur ginan gaztelutik, edo, hobeto esateko, bertaratzeko bide nagusia itzi behar genduan lekutik. Horretara heldu, bide zabala itzi, eta bide-zidor batek arerioengandik salbu jarriko ginduzan. Artean, oster, Aralar mendirantz joian bide zabalean genbilzan, leher eginda, neke eta hotzagaz burruka bizian, handiak ziralako biak. Honeek zailtzen euskuen ibilaldia, ez jakun batere erreza egiten orekeari eustea lur gogorrean, berezian neskeari. Gazteluaren hurtasunak, zorionez, indarra emoten euskun aurrera jarraitzeko, hotzari ez ezik baita etsipenari ere

aurre egiteko. Izan ere, ordubete eskas besterik ez jakun falta heltzeko, ordubete bazter guztiak nahasten ibiliko ziranengandik salbu egoteko.

Ordubete bakarrik!

Isilik ginoiazan, gogoetei emonda, laurok. Gogoeta ilunei emonda ni, ordu bete barru Mikelek eta biok aurre egin beharko geuntsazalako errealitate gordinari, eta hasi denporan zehar bidaiatzeko moduaren bila, jakina. Ez genduan lan makala, benetan!

Pentsatze hutsak barrua dardarka jarten eustan.

Baina, kinka larriagoak ere pasatzeko gengoan artean, zoritxarrez, guzurra badirudi ere.

Halako baten, zaratots batek egunsentiaren isiltasuna urratu eban. Ibarretik gora arrapaladan etozan zaldiak eta zaldizkoak egiten eben. Zur eta lur geratu ginan, berbarik esateko gauza ez, alkarri begira, susmo ilun batek hartuta.

—Entzuten dozue? —Diegok apurtu eban lauron inguruan sortutako isiltasun astuna—. Larrazako mutilaren lagunak, antza, bera ez bada.

—Ez dogu ihesbiderik —gaineratu eban neskeak, guztiz ikaratuta.

Bidearen bihurgune baten ikusi genduzan. Lagun bi etozan aldapan gora, goitik behera gudarako jantzita eta zaldiak lehertu arte behartuz, zuzenean gureganantz. Heldu baino lehen, halan ere, bagenduan denpora apur bat zer egin erabagiteko. Pitin bat bakarrik, besterik ez.

—Larrazako mutila da. Zital hori! —esan eban neskeak barrero, gazte setatia berehala ezagutuz.

—Aurre egingo deutsegu —esan eban Diegok, ezpatea narruzko zorrotik atereaz.

—Bai, baina ez edozelan —esan neutsan, haren asmoa ontzat emonez, baina ez berak gura eban lez.

—Zelan? —Mikelek itaundu eban, eszeptiko.

Banekian zelan. Egun hareetan izandako argitasuna agortu barik neban, antza, zeren aurrera begiratu eta orduan ere argitxo bat isiotu zalako niregan. Bitan pentsatu barik asmoa burutu bidean jartea erabagi neban.

—Tira, goazen aurrera, bizkor! —esan neutsan berrogeita hamar bat metro aurrerago begira, bidea pago artean galtzen zan alderdia seinalatuz—. Diego eta Ines, zuek pago ostean ostondu, eta hi, Mikel, gelditu nigaz. Rappel berezi bat egin behar joagu.

Berba gitxitan azaldu neutsan asmoa. Gero pago batera igon genduan. Adar sendo bi aukeratu eta eskaladako sokak lotu genduzan. Jarraian zuhaitzaren enbor lodiaren atzean ostondu ginan, bihotza airean, heltzeko egozan zaldizkoei itxaroten.

Arrapaladan agertu ziran bidean, erruki barik animaliak ezproiez joz, zuzen-zuzen gu gengozerantz. Begiradaz bat etorri ginan

Mikel eta biok, eta zaldizkoak heltzeko ziran, hegaz egin genduan oihuka. Sokak lagunduta, arranoak bagina lez, itsumustuan harropatu genduzan arerioak.

Bikaina rappela! Errepikaezina!

Jazarle joan eta jazarriak gertatu. A ze ezustea hartu eben Elbarrenako mutilak! Baita sekulako ikaraldia ere, jakina. Zer gertatzen ari zan konturatzerako zaldietatik lurrera bota genduzan, zanpateko ederra hartuazoz.

Batera burutu genduan hegaldia Mikelek eta biok. Eskalada-sokak errez eutsi eutsien gure bultzadeari, baita adarrak ere. Hobezina izan zan Mikelena, oinez talka egin ebalako Larrazako gaztearen bularrean, buruz atzera botaz; ez hain ona nirea, eragingarriagoa izan arren, zeren arerioaren bekokia jo neban belaunez. Ha ere, bestea lez, hankaz gora jausi zan lurrera, baina konortea galduta. Jo orduko, ostera, min handia sentitu neban belaunean. Une haretan, ostera, belaunetako minak ez ninduan larregi kezkatu, handia izan arren.

Diegok itxaroten eban unea heldu zalako. Ezpatea eskuan hurreratu zan Larrazako muti-larengana: zuhur, neke arrastorik ez beregan, muskuluak teink liskarrerako. Zutuntzen itzi eban. Ez eban egoereaz baliatu gura izan auzia behin betiko garbitzeko.

Ez jatan gogoko burrukea, hasteko egoan odol-isurketea, baina neure burua garaiko ohiturei egokituta, amore emon behar izan neutsan lagunaren gurariari. Ha zan, gainera, une haretako urtenbide bakarra, onerako zein txarrerako. Ikarea barruraino sartuta neban, eta ez nik bakarrik, baita nire lagunak ere. Lehiakideei begiratzen geuntsen, begiak zabal-zabalik begiratu ere, ikarea begiradan nabarmen. Inesek, zurbil-zurbil, begiak malkoz beteta, ez eutsan begirik kentzen bihotzeko mutilari; honek, barriz, itxuraz nasai, begi gardenei adorea eriel, gorrotoz begira aurrez aurre eban arerio gazteari.

Altzairuaren soinu zorrotzak behin eta barrero urratu eban goiz parteko patxadea. Ulea

lazteko modukoak ziran, besoei indar handia-
goa emoteko asmoz, gazteak egiten ebezan
garrasiak. Ezpatakadak ere zein baino zein
gogorragoak ziran, ikaragarriak, gizakume bat
erdibitzeko modukoak. Halan ere, bai Diegok
bai Larrazako mutilak, baztertu eta geratuazo-
teko trebetasun handia erakutsi euskuen.

Gaitz erdi!

Burrukea luzatuz joan zan. Latza izan
ere. Burdinearen klinkak eta gazteen eeeufak
ez eben amaierarik. Okerrena itxaroten neban,
hain zalako handia burrukalarien arteko bar-
dintasuna. Edozein unetan, edozeinek esku-
ratu eikean garaipena, garaipen odoltsua,
nekusanaren arabera. Edota alkar zauritu edo
hil, eitekena zalako hau ere, aitatutako bardin-
tasuna zala bide.

Bildur neutsan uneari, bada, bildur handia
burrukearen amaieari. Zorionez, ez zan izan
nik uste neban lakoa, gero eta gogorragoa
bihurtuz joan arren. Izerditan blai egozan mutil

biak, ezpatakada ikaragarriak alkarri jaurtiz, baina nekearen lehenengo aztarnak agertzen hasita biak. Amorruek emoten eutsen jarraitzeko behar eben kemena, erasoaldiak alderatzeko argitasuna. Halako baten gure lagunak urradura bat egin eutsan besaburuan Larrazako mutilari. Besoa minduta ezpateak ihes egin eutsan eskutik.



Alkarri begira geratu ziran. Gure arerio gaztea harro kinka larri haretan ere, azkenengo ezpatakadea jasoteko prest. Goratxoagoko gorritasuna ezabatua eban aurpegitik; zurbila zan orduan. Ez jakon bildurrik agertzen, bere buruagazko hasarrea baino ez. Izan ere, une estu haretan oraindino mingarriagoa jakon porrota bizitzea hari batetik zintzilika izatea baino, begi-bistan egoan.

—Diego, ez eizu hil! —oihu egin neutsan, gertatzeko egoan odol jarioak larrituta.

—Ez da nire asmoa —esan eutsan nasai asko. Gero era berean berba egin eutsan are-rioari—. Makur jokatu dozu munduan gehien maite dodana kendu guraz —esan eutsan—, haren bihotzak ukatzen eutsuna indarrez lortzeko asmoz. Nik ez deutsut kenduko daukazu gauza preziatuena, Zeruko Ahaldunak emondako bizia. Odol larregi doa isurtzen gure lurraldeetan, gorrotoa zabalduedia dago, indarkeria da legea aspaldi, eta nik ez dot gura lege makur horren morroi izan. Zoaz bakean, bada, eta baztertu zugandik guganako grina

gaiztoak. Nirea ez da erabagi erreza, ez pentsatu, batek daki inoiz ez ete nazan damutuko. Baina, zoaz!

—Hil naizu —harroa zan mutila, arraioa!—, zure errukia iraingarria jat eta.

—Nire ezpateak ez dau zure bularra zulotuko.

—Eulia zaralako.

—Nire ausardia frogatu deusut, eta ez oraingo honetan bakarrik, ondo dakizun lez. Zoaz bakean, eta ahaztu, guk egingo dogun lez, orain arteko guztia. Bestalde, ez dozu zertan lotsaturik, zeu ere ausarta izan zara eta.

Isilik geratu zan, zeozertxo nasaiago, beharbada eskeintzen jakon aukerea barruko balantzan ipinita. Nire uste apalez urtenbide parebakoa eban ezelako orbain barik etxera itzultzeko.

XVI KOBAZULOA

Sekulako poza emon eustan burrukearen amaiereak, Diegoren abenturea sarraski baten ez amaitzeak. Baina nire pozak ez eban luzaro iraungo, ez horixe, begien itxi-edegi baten ezereztuta gertatu zan, eta, gainera, berehala ere, haren zapore gozoaren orde z larritasunaren mikatza agertu neban niregan.

Zaldi tropel baten zalaparteak eten eban burrukearen osteko une berezia. Ibarretik gora etorkun ha ere. Arrapaladan etorren talde bat zan, nahiko handia, asmo zitalez beteta guganako, jakina.

Inozoa halakoa! Garaipena ospatzen hasi... Garbi egoan ez ginala salbu egongo Athaungo murrak zeharkatu arte. Eta ha lortzeko bizkor ibili behar genduan orduan ere, berehala zirt edo zart egin, egin neban lez.

—Bizkor! —esan neutsan Diegori—. Zu eta Ines zaldietara! Hartu eizuez eta abiatu gaztelurantz, arrapaladan!

—Eta zuek?

—Bizkor, denporarik galdu barik! Ez gutaz kezkatu, dagoaneko ohituta gagoz estu-aldietatik urteten. Oraingo honetan ere zelan edo halan moldatuko gara. Tira, zaldietara!

Besarkada presati batek banandu ginduzan. Neskearen begietan perlatxo bi zintzilikatu ziran. Une labur batez isilik begira geratu jakun, begi argietan esker ona islatuz, baina barbarik esan ezinik. Ez eban beharrik, baina, begietakoa hamaika berba baino adierazkorragoa zan eta. Azkenean, alde egin baino lehen, berba egiteaz gainera urrezurizko eraztun bat emon eustan.

—Gure bihotzean betiko izango dozue lekutxo bat —esan eustan samurtuta—. Gorde eizu eraztun hau gomutagarri lez.

—Guk ere ez zaituegu sekula ahaztuko —esan neutsan—. Baina mogidu zaiteze, bizkor, bestelan gure ahaleginak eta sufrimenduak alferrikakoak izango dira.



Zaldietara igon eta abiatu ziran gaztelura eroango ebazan bide-zidorrerantz.

—Zer egin behar dogu? —itaundu eustan Mikelek, lagunak joandakoan, urduri begira laster helduko ziranei.

Begiratu azkarra emon neutsan inguruari: alferrik zan gaztelurantz abiatzea, baita Aralar mendirantz ere, berehala harrapatuko ginduezan; eta, jakina, oraindino alferrikakoagoa aurre egitea. Hanka egin behar genduan, ez genduan beste ihesbiderik. Eta haretarako urtenbide bakarra gure eskuman egoan, Arastortz deritzan mendi gainean hain zuzen ere, bere hegaletik gora eginez, aldapa pikotik gora.

—Hortik ez bada, gureak egin jok —eta aldapa bedartsurantz luzatu neban besoa.

—Ea ba, ez daigun segundorik ere galdu —ihesari emon eutsan Mikelek, amorruez beteta lurretik begiratzen euskun gazteari ezpatea hartuta.

Atzetik joan nintxakon, erdi herrenka, malda pikoan gora. Tarte batez Larrazako mutilak ez eban txintik ere esan. Zeozertxo aldendu ginala, bere lagunak hur egozalarik, garrasika hasi jakun.

—Zuekaz ez dot zorrik, deabruseme mardarikatuak! Sokearena ez, suarena da izango dozuen heriotzea. Zin egiten deutsuet!

Aldapeak amaitu ezina emoten eban. Azkenengo indarrak amaitzen genduzan. Baina, geratu barik ginoiazan gorantz, ahal genduan moduan joan ere, batez ere ni: tente, lau oinean, arrastaka... Edozelan! Izan ere, geziak gure inguruan sartzen hasi ziran lurrian, oso hur. Gero eta hurrago geunkazan arerioak ere, Larrazako mutil amorratua buru ebela.

Leher eginda, belaunean min handia nebala, geraldiki bat egin behar izan neban. Ahozpeze geratu nintzan. Mikel, barriz, atzera begira geratu zan, jazarleakazko tarteak neur-tuz. Nahikoa zan artean, baina luzaro barik...

—Aurrera, Aitor, aurrera! —esan eustan arnasbehartuta.

—Ezin joat, porru eginda nagok, belauna minduta.

—Ez gagozak tontoretik urrun. Ea, azkenengo ahalegina!

Tontorraren aitamenak, eta geziak txistuak ere bai, gogora ekarri eustien entzutez bakarrik ezagutzen neban zuloa. Begiak lurretik

jaso, kosta ahala kosta, eta haren bila jarraitu neban. Alferrik. Baina inguruan egon behar eban, guztiz oker ez banengoan, edota zuloarena txarto ulertu bat ez bazan, behintzat.

—Mikel, gogoan dok behin baino gehiagotan aitatu deuskuen inguru honetako kobazuloa? Mendia alderik alde zeharkatzen dauana edo. Aditua izango dok... —esan neutsan erdi totelka, oker egoteko posibilitateak urdurituta.

—Bai, aditua joat. Bai horixe! —haren gan ere argitxo bat isiotu zan—. Gailurretik ezkerraldera ei jagok.

—Beraz, inguruan egon behar jok. Ea aurkitzen dogun! Bestelan... Tontorreraino ez gaituk ailegatuko, begi-bistan jagok, nik ezin joat; hortaz, zuloa ala sua, ez jeukagu beste aukerarik.

Garrek ikaraturik, zuloaren bila hasi ginan. Ez zan lan erreza izan, ez horixe. Arerioen hatsak kasik entzun geinkezalarik azaldu zan zulo ilun estua. Zelako nasaitua!

—Egun argiz ausartak zarie; ea lur barruan sartzeko adorea dozuen! —esan eutsen Mikelek oihuka.

Sugeak bagina lez, honeek bestean errez, lerratu ginan zulotik barrura. Hasieran estu, apurka-apurka zabalduz joan zan. Etsi-etsian lur abegikorren magalean babestu ginan. Uste lez gure arerioak ez ziran gai izan zuloan sartzeko. Hau dala eta, kobazuloa estutzen zan alderdi batera helduta, geraldiki bat egin genduan, atsedean hartzeko asmoz.

—Zer, aurrera? —itaundu eustan Mikelek handik apur batera.

—Aurrera, jakina. Kobeak mendia zeharkatzen ei jok.

Aurrera egin genduan. Egin ahal izateko, baina, aurretik motxilea sartu behar izan genduan, estua zalako oso tartea. Mikel abiatu zan aurretik. Motxilearen atzetik zulo ilunean desagertzen ikusi neban.

Laster beste horrenbeste egin neban nik. Arrastaka zeharkatu neban zuloaren tarte estua,

ozta-ozta gainera, hain zalako estua. Hiruz-
palau metro izango ziran estuenak, gero zeo-
zertxo zabalagotzen zan, baina gitxi. Mikel,
antza, aurrerago egoan. Dei egin neutsan:

—Mikel

Nire deiak ez eban erantzunik jaso. Une
batez adi egon nintzan baina ez neban hotsik
ere entzun. Barrero egin neutsan dei. Alferrik
orduana ere. Jarraitzea erabagi neban.

Itsu-itsuan egin neban aurrera, pasabide
estua ahalik eta arinen zeharkatzeko asmoz.
Ez zan zabaltzen, ostera, atzera estutu baino,
aurreragoko ustearen kontra. Linternearen
argia zuloaren hondorantz zuzendu neban.
Iluntasunak galazo eutsan bidea. Baita argita-
suna moteldu ere, ahuldu, zurbildu...

Barruko giroa itogarri bilakatu zan.
Begiak lausoturik neukazan, burua zorabia-
turik... baina itolarria zan larriena...

Dei egin gura izan neutsan Mikeli.
Ahozulotik garrasi moduko zeozerk urten eus-
tan, hots ulertezina, aituezina...

XVII ITZULEREA

Eguzkiak behe lainoa urratzen daua-
nean lez joan ziran nire inguruko irudiak sor-
tzen, laino arin baten batuta, gastatuak balira
lez. Hasieran geldiro-geldiro eta zirriborrotu;
gero, bizkorrago eta garbiago; eta, azkenik,
arrapaladan eta guztiz gardenak. Harriturik
begietsi neban miraria, alde guztietara begira,
nire begiak ikusten ebena sinestu ezinik.

Izan ere, ez nebazan ikusi ziega hotz
baten horma ilunak, ezta ustezko zaindarien
artulezko praka eta narruzko zamarra zikinak
ere, eta bai horma zuri-zuriak, berotasun gozoa
eta guztiz bestelakoak ziran gizakumeak.

Non nengoan? Zer ziran eskumuturrean neukazan plastikozko hoditxoak? Nor zan aldameneko ohean lozorroan egoana... Hara, bera zan, bai, bera... Mikel, nire lagun mina!

Adierazo ezina izan zan sentitu neban poza. Ez nenbilen ametsetan, ez horixe, itzuliak ginan Erdi Arotik, itzuliak ginan!

Nirea besteko handia izan zan gelan egozanena ere, jakina, nire amarena eta Mikelen arrebearena. Begiak malkoz bete jakezan nik sena berreskuratzen nebala ohartuta.

Berehala, baina, gogoetetan murgildu nintzan, itaun-uholde batek behartuta. Itzulia nintzala... Nondik? Bidaia ikaragarri batetik ala amets zoro batetik? Ezbaietan geratu nintzan.

Nekatuta nengoan, bestalde, guztiz nekatuta! Baina neke eta guzti, lehentxoago irudiak moduan, gomutearen pantailan gertatutako guztia hasi zan agertzen, bizi-bizi, garbi-garbi eta... guztiz txundigarri!

—Edurne, Mikel ere... badator, begiak zabaldu dauz, senera dator! —poz-pozik aditu neban.

A ze nahasketea! Erdi Aroan ibili ete ginan?... Bai ete? Horixe baietz! Baina zelan emon aditzera...? Ez ete zan zoraldi bat izango...?

Hoditxo barik neukan besoa luzatu neban: urraduraz josita egoan. Halan ere, ez neban luzatu urradurak ikusteko baino, ez horixe, atzamarrak ikusteko baino, atzamar nagia hain justu ere. Estu eta larri begiradea besotik behera lerratu neban, astiro, bidea burutzeko bildurrez edo.

Hara han urrezurizko eraztuna! Zirrara batek goitik behera astindu ninduan. Ez, gogoan nebana, argi eta garbi gainera, ez zan amets bat, bai zera, ahaztuezinezko abentura bat baino. Edozelan ere, egiazkoa izan arren, ametsa, ameskeria edo era bereko moduan geratuko zan Mikel eta bion artean. Ezin bestelan izan, jakina.

Nork sinestuko euskun...?

—Zelan heldu gara? —itaundu neutsen, ahalegin handia eginik.

—Galdetzea ere! Egun bi bila jardun eta gero, haitzuloa goitik behera alferrik arakatu eta gero agertu zarie, Arastortz mendi inguruan, Koai baserritik hur. Eta zelan! Begiak zabalik baina mundutik kanpo, holantxe aurkitu zaitue. Zuekaz bihotza airean euki behar beti! Non demontre sartu zarie? —esan eban nire amak, hasarre eta pozik aldi berean.

—Kobazuloan galdu ginan —esan neutsan, zeozer esateagaitik.

—Ba, mendiaren beste puntan agertu zarie, biok burua nahastuta, Erdi Aroari buruzko berba ulertezinak marmartuz. Zer haize boladak jo zaitue oraingoan? —Mikelen arrebeak serioz, beti lez gure zaletasunak ulertu ezinik, etxeko eta herriko erosotasunera ohituta.

—Ez dot ezer gogoratzen —guzurra esan neban badaezpada—, ezertxo ere ez. Ezta honaino zelan heldu garan ere.

—Shockak jota biok —jarraitu eban—. Horretaz, ez da harritzekoa ezer ez gogoratzeari, ezta zorakeriak esatea ere. Baita leher eginda ere, osagileak esan deuskunez. Zelan zabilzen!

—Aitor... —Mikelek berba egin eban, ahots apalez baina alai—, itzuli gozak, ezta?

—Ea eskarmentua hartuta itzuli zarien! —nire amak.

Mikeli begiratu neutsan. Irribarre zabala eban aurpegian. Besoa luzatu eustan; beste horrenbeste egin neutsan nik. Alkarri emon geuntsan bostekoa. Eraztuna ikusi eban.

—Eraztuna... —aurreratxoago moduan apal berba egin eban—. Orduan... ez dok amets bat izan, han ibili gozak!

—Horixe ibili garala!

—Erlojua, Aitor, erlojua! Bajabilek, eta ondo gainera! —jarraitu eban, poza eta harri-durea nahastuak, eskumuturrean eukanetik horman egoan ordulariari begira.

—Nirea ere bai! —pantailatxoarena ohi lez egoala ohartu nintzan.

—Zertan diharduzue? —Mikelen arrebeak, susmoak hartuta—. Burua galtzen barrero?

—Ez, burua berreskuratzen —nebeak alai.

Une haretantxe sinatu genduan isileko ituna, gaur arte isilpean gorde doguna eta, orain, etxean ere gauzak bere onera etorriak, orri honeetan azaldu dodana. Badakit, jakina, gure abenturea sinesgaitza dala, dakidan lez zorotzat edo guzurtizat hartuak izateko arriskua dogula. Ez zan harritzekoa izango, gaineratuko neuke. Halan ere...

Hor dago Ataun herria, kutsu magikoa dariola gaur ere; eta bere mugetan kobazuloa, jakina, baita gazteluaren azkenengo aztarnak, edota Bernoako galtzadea, eta Mikel eta biok ibilitako gainerako bazterrak.

Aldatuak, baina seiehun urte pasatu eta gero bizirik lez guretzat! Eta nire atzamarrean... Nire atzamarrean, urrezurizko eraztuna!

BEASAIN, 1998-4-12

AURKIBIDEA

Sarrera lez	7
I. Haitzuloan	9
II. Egun-argitan	19
III. Basetxea	25
IV. Atxilotua	37
V. Ihesaldia	47
VI. Laguna	55
VII. Jentilbaratza	71
VIII. Athaun	77
IX. Aspirinea	83
X. Bernoako gainean	95
XI. Ergoena	103
XII. Mikel	111
XIII. Ines	117
XIV. Askatasunerantz	123
XV. Burrukea	133
XVI. Kobazuloa	143
XVII. Itzulerea	151

LIBURU HAU
TIMES FAMILIAKO
LETRA MOTAK ERABILIZ
INPRIMATUA IZAN DA.

EKIN BILDUMEA:

- 1 • Joxemari Iturralde
Lehenengo amodioa Suedian
- 2 • Aitor Arana
Uxue eta Urtzi
- 3 • Juan Manuel Etxebarria
Iaun Zuria
- 4 • Iñaki Zubeldia
Nire aita ezin izan neban salbatu
- 5 • Iñaki Bernaola
Lau idazluma ahiztak
- 6 • Joanes Urkixo
Zeruak jausi ziranekoa
- 7 • Pako Aristi
Benetako lagunen aterpea
- 8 • Igerasoro
Kartapazioko poemak
- 9 • Iñaki Frieria
Non bizi da Bildur?
- 10 • M. A. Mintegi Larraza
Coca-Cola Erdi Aroan
- 11 • Pello Esnal
Salomondarrak
- 12 • Iñaki Zubeldia
Bizitzearen oihanean galduta

Mikel eta Aitor denporan seiehun urte atzera eginda ibiliko dira, Erdi Aroan bete-betean sartuta, sinestezina iruditzen bajake ere. Gora-behera eta estualdi ugariri aurre egingo deutsie, askotan gaur egun arruntak baina sasoi haretan tresna harrigarriak emoten eben gauzak lagun-duta, aspirina batek edo Coca-Cola pote xume batek esaterako.

Lortuko ete dabe XX. mendera itzultzea?

